

Berrigara



Lan istripuak

Formakuntza eta
prebentzioa irtenbide



Gelditu ez zaitez en mugitzen gara

Olio aldaketa

3.995 PTAtik
24,01 € aurrera

Balazta-pastilen aldaketa

4.995 PTAtik
30,02 € aurrera

Doan, 25 punturen begizko azterketa
operazio bakoitzeko

Menu horia
RENAULT *Txanda estatu barik*

MECA

BERGARA

Erakusketa eta tailerr

Amillaga 5
BERGARA

Tf. 943 76 40 68



Maiatzak 20 eta 21

FERITUR

DEBAGOIENENKO I. TURISMO AZOKA

ARRASATE UARCAPE *Frontoia*

ORDUTEGIA 10:00 - 15:00 / 16:30 - 21:00

Sarrera Dohain



BIDAIEN ZOZKETA

Antolatzailea

Laguntzailea


OCL 37-03
HALCON
BIDAIAK

DEBAGOIENENKO
MANKOMUNITATEA





Giro nahasia

Ane Miren Lizarralde/ Kazetaria

Giro nahasian murgilduta gaude. Aspalditik giro nahasi samarrean bizi izan garen arren, eta hala eta guztiz ere, ETak joan zen igandean egin zuen atentatuak gehienon barrenak astindu ditu berriz ere. Hilketa batek, eta kasu honetan, Jose Luis Lopez de Lacalle kazetariaren hilketak, ez gaitu inora eramaten, bere familian utzi duen hutsunea edota kalean bizi izan diren une tristeetara ez bada.

Gure gizartean ahots desberdinak entzuten ari gara, eta ezberdintasun horiek areagotzen ari dira. Konfusioa eta krispazioa handiak dira. Argi pixka bat ikustea ez legoke gaizki. Nondik? Hor dago gakoa. ETak ezin du agindu. Madrilgo gobernuak bere apostua egin du, inbestidura plenoan argi gelditu zenez. Aznarren hitzak zehatzak izan ziren. Sozialistak berean daude, eta biolentziarekin argi dago alderdi nazionalistek ezin izango diotela, erraz behin-

tzat, heldutako bideari jarraipena eman. Biolentzia desagertzen ez bada, elkarrizketak zaila dirudi, eta elkarrizketa ez bada bidea, azter dezagun beste bideen bitartez, zer lortu den.

Jose Luis Lopez de Lacalleren hilketatik bilakatu da aste honetako irudi tristea, baina eman du aste honek beste argazki bat ere: Rodriguez Galindo, Julen Elgorriaga eta Angel Vaquerorena kartzelara sartzen, beraien bizkarren gainean 69 eta 71 urte bitarteko kartzela zigorra dutela. Iñigo Iruin, defentsaren abokatuak, alde positiboa ikusi dio epaiari, baina talde armatuko partaidez jatzeko aukera historikoa galdu egin dela aitortu du. Iruinek, torturatze-agatik zigorrik ez jartzea ere kritikatu du. Ezin da, ez, epaia gutxietsi, eta Iruinek ere zentzu honetan hitz egin du. Nork pentsa, epaiketa hasi aurretik, 17 urtez justiziatik kanpo izan ziren ekin-tza batzuk horrela zigortuak izango zirenik?<

“Biolentzia desagertzen ez bada, elkarrizketak zaila dirudi, eta elkarrizketa ez bada bidea, azter dezagun beste bideen bitartez, zer lortu den”

barruan



Arantxa Odriozola

Integrazioko moduloko burua

“Gizartean gero eta gehiago dira baztertuta dauden talde eta pertsonak”

8.



Jon Alberdi

Pala jokalaria

“Jende ezberdinarekin jokatzea ondo dator beti, gauza berriak ikasten direlako”

27.



A. Urriolabeitia

Tabernaria

“Orain dala urte batzutatik hona nabari da txikiteua asko jaitsi dala”

33.

AGENDA ETA ZERBITZUAK



BEKAK

Fulbright bekak.

Kultura, Hezkuntza eta Zientzia trukaketaren komisioa. Estatu Batuetan graduondoko ikasketak burutzeko. 1994 ondoren lorturiko goi-mailako titulazioa. Ingelesa menperatu. Epea: maiatzak 25.

LEHIAKETAK

Euskal Gizartearen Egoera.

Eusko Jaurlaritzak. Euskadiko egoera sozio-politikoaren ezagutzeko eta hobeto aztertzeko metodologiak garatzen dituzten ikerketa-lanen saria.

Epea: irailak 15.

Serantes saria.

Serantes Kultur Aretoa. Euskaraz zein gaztelaniaz idatzitako testu dramatikoak. Epea: irailak 30.

LAN ESKAINTZAK

Familia Langilea.

Irurtzuneko Gizarte Zerbitzueta Mankomunitatea (Nafarroa). Eskola Graduatu edo baliokidea, euskara hitz egin eta idatzi, gidatzeko B karneta eta berezko kotxea. Egun erdiko jarduna. Epea: maiatzak 18.

Gizarte Laguntzailea.

Irurtzuneko Gizarte Zerbitzueta Mankomunitatea, euskara, gidatzeko B karneta eta berezko kotxea. Egun erdiko jarduna. Epea: maiatzak 18.

Kazetaritza praktikak.

Gara; EHU-UPV, UPNA. Komunikazio-Zientziatzaileen azken bi urteetako ikasleentzat. Euskaraz eta erdaraz erredaktatzeko gaitasuna. Uztail eta abuztuan. Epea: maiatzak 28.

EKITALDIK

Udalekuak 2000.

Gipuzkoako Foru Aldundia. 7-13 urte bitartekoentzat. 2. zozketan parte hartzeko epea: maiatzaren 12tik 18ra.

IKASTAROK

Lanerako prestakuntza.

INEM; Cebanc. zerbitzaria, okina, garpe turtitkorako aientea, ofimatika. Langabetuentzako ikastaroak. Berehala lanean hasteko. Dohainik.

KARNETAK

Nazioarteko Aterpekeide, Ikasle (ISIC), Gazte (LYTC) edo Irakasle (ITIC) karnetak eskuratzeko, zatoz Gazte Informazio Gunea.

INFORMAZIO GEHIAGO:

BERGARAKO GAZTE
INFORMAZIO GUNEA (Kultur Etxea)
TELEFONOA: 943 77 91 57.
E-mail: gzerbitzu@euskalnet.net
Osteguna/ostirala: 16:00-20:00
Larunbata: 09:30-13:30

OHARRA. Bergarako edo inguruko elkarte, heziketa zentru eta enpresei eskertuko genizueke Gazte Informazio Gunea igortzea zuen ekintzen, ikastaroen, lehiaketen eta lan-eskaintzen informazioa, bertako gazteei nahiz probintzia guztikoei informazioa zabaltzeko. Mila esker.

bertako berbak

Juan Martin Elexpuru



Ostarkua

Ostadarra.

- Eurixa ta euzkixa batera dianian ostarkua agertzen da.

JOSU OINA

Temperaturak eta euria Bergaran

Elosu: Joxean Azkarate
San Juan: Luis Mari Agirre

	Elosu			San Juan		
	max. °C	min. °C	euria l/m ²	max. °C	min. °C	euria l/m ²
Eguena 4	22,5	13,5	-	24	12	0,8
Eguakitza 5	19	12,5	8,7	24	11	2,9
Zapatua 6	16	9	-	24	10	3,2
Domeka 7	16	12	34,3	23	11	2,2
Astelehena 8	16,5	12	-	23	11	-
Martitzena 9	15,5	9	14,8	20	10	15,2
Eguaztena 10	15,5	12,5	-	22	14	-

Farmaziak

Eguakitza 12:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

Zapatua 13:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.

Domeka 14:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.

Astelehena 15:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.

Martitzena 16:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

Eguaztena 17:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.

Eguena 18:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

Ogia

Domeka 14: Konde.

Zozkeak

BKEko pilota sailaren zozketa:

1. saria, 3.812 zenbakia:

buruz burko finalerako bi sarrera eta 25.000 pezeta

2 saria, 8.513 zenbakia:

Infernukua taberna

4 lagunendako afaria

Telefonoak

OSASUNA / LARRIALDIK

SOS deiak 112
DYA 943 78 71 57
Gurutze Gorria 943 76 55 76
Larrialdia 943 46 11 11
Ambulatorioa (txanda) 943 76 24 40
Ambulantzia 943 55 49 62
Udaltzaingoa 943 77 91 06
Ertzaintza 943 76 53 40
Suhiltzaileak 943 78 28 00
Osasun Etxea 943 76 24 40
Arrasateko ospitalea 943 03 53 00
Asepeyo 943 76 16 43
Pakea 943 76 13 49
Angiozarko medikua 943 78 90 27
Antzuolako medikua 943 76 62 23

GARRAIOAK

Euskotren 943 45 01 31
PESA 902 10 12 10
Taxiak 943 76 19 50
RENFE 943 28 35 99

UDALA

Udaletxea 943 77 91 00
Udal Artxiboa 943 77 91 32
Igerilekuak 943 76 20 51
Kultur Etxea 943 77 91 58
Liburutegia 943 77 91 62
Mizpirualde Egoitza 943 76 13 68
BESTELAKOAK
Epaitegia 943 76 14 92
Erregistroa 943 76 13 15
Jardun 943 76 36 61
Jubilatuena Etxea 943 76 21 40
Postetxea 943 76 26 85

zorion agurrak



Maria Martinez
18an 5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta
Marisa.



Mireia Ibabe
13an 2 urte.
Urte askotarako!
Antzuola eta
Bergarako familiak.




Iker Gorriti
18an 3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Josu Gorriti
18an 3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Asier Mujika
15ean 8 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Jabi Corchero
14an 31 urte.
Urte askotarako!
Juan eta Maria eta
Imma.



Maika Gallastegi
14an 4 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Unai Agirre
14an 14 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta
Nerea.



Iñaki Berroia
12an 7 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak eta
lagunak.



Maite Elortza
14an 6 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Iñigo Iparragirre
14an 7 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta anaia
Andoni.



Ander Barruso
12an 8 urte.
Urte askotarako!
Ikeme, Alex eta
Arritxu.

mezak



Nekane Eskibel
13an 37 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Jon Pueyo
14an 11 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak, Borja eta
Josu.



Ekaitz Regorigo
14an 8 urte.
Urte askotarako!
Familia eta Idoia.



Ander Franco
16an 8 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak eta
Mireia.



Arantxi Etxebarriarteun
15ean urteak. Urte askotarako!
Familia-koak eta Asier.



Aurken Beistegi
18an 12 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Jon Garitano
16an 12 urte.
Urte askotarako!
Koadrilako neska.



Jon Mikel Aiastui
17an 7 urte.
Urte askotarako!
Aita, ama eta Idoia.

Santa Marina

Domekak:
11:30, 13:00.
Zapatuak: 19:00.
Lanegunak: 19:30.

San Pedro

Domekak:
09:30, 12:30.
Zapatuak eta
lanegunak: 19:00.

Osintxu

Domekak: 11:30.
Zapatuak: 19:00.

Elosu

Domekak: 10:00.

Ubera

Domekak: 10:30.

San Juan

Domekak: 11:00.

Basalgo

Domekak: 13:00.

San Prudentzio

Domekak: 10:30.

Labegarieta

Domekak: 11:00.

San Lorenzo

Zapatuak: 20:00.

Angiozar

Domekak: 11:00.

Eguakitza: 19:00.

Monja

Zaharrak

Domekak: 18:00.

Zapatuak eta
lanegunak: 20:00.

Mizpirualde

Domekak: 11:45.

Zapatuak eta
lanegunak: 11:45.

Antzuola

Domekak:

09:00, 11:30.

Zapatuak eta
lanegunak: 19:30.

Uzarraga

Domeka: 10:00.

URTEURRENA

Jabi Errarte Alberdi
"Jabitxu"

Lehen urteurreneko meza
domekan, maiatzak 14,
goizeko 11:00etan,
Angiozarko San Migel elizan.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

jaiotakoak

Aste honetan ez dugu jaiotakoen berririk jaso, ez Antzuolan, ez Bergaran.

hildakoak

BERGARA

Maria Luisa Davila Fernandez

Maiatzak 4, 94 urte

Julian Elortza Arana

Maiatzak 5, 51 urte

Domingo Etxeberria Zangitu

Maiatzak 10, 63 urte

*Hurrengo alean,
maiatzaren 19tik 25era
bitartekoak
zorian agurrak
argitaratuko ditugu.*

*Eskelak, urteurrenekoak eta
eskertzak eguazten eguerdira arte
hartzen ditugu.*

Berrigararak, irakurleei:

Aste honetatik aurrera
Berrigarako erredakzioa Irizar jauregian dago

Barrenkaleko 33 zenbakian.

Zorion agurrak eta eskelak ipintzeko, erretratu zaharrak ekartzeko eta bestelako edozein kontsulta eta abarretarako, zatozte bertara! Ongi etorri denoi!



Sarrera

ANTZERKIA

► **Txotxongilo** taldearen **"Kli kla birziki-kl"** umeentzat antzerkia domekan, 12:30ean, Elorriko Ateneoan.

► **Yllana** taldearen **"Hipo"** antzezlanaren estreinaldia datorren eguakitzean, hilak 19, 22:30ean Elorriko Arriola aretoan.

MUSIKA

► **Jam.** Gaur, eguakitzan, **A.N.I.M.A.L eta Soda** taldeak, 22:00etan. Bihar, zapatua, **Andre Williams eta Atom Rhumba**, 22:00etan. Datorren eguakitzean, hilak 19, **Stiff little fingers** taldearen kontzertua.

► **Go-Jam.** Domekan, 21:00etan, **Paul Collins.** Datorren eguenean, hilak 18, **Howe Geld.**

► **Marta Campos** Kubako kantaria gaur, eguakitzan, 22:30etan, Elorriko Ateneoan.

ERAKUSKETAK

► **Fernando Arenazaren "Irtenbiderik bai?"** izenburuko margo erakusketa Donostiako Digitex arte galerian (Usandizaga kalea, 5) ekainaren 3ra arte.

► **Andres Trompetaren lora eta hosto erakusketa** Eibarko Arrate Kultur Elkartearen (Zuloagarren, 3) domekara arte ikusgai.

► **Joxan Bilbaoren margo erakusketa** Donostian, Kutxako aretoan

(Boulevard, 1) maiatzaren 18ra arte.

LEHIAKETAK

► **Bergara Hiria argazki lehiaketa.** Zuribeltzeko eta koloretako argazkiak onar-

tuko dira (mota bakoitzeko lau gehienez). Lanak Kultur Etxean entregatu beharko dira maiatzaren 31a baino lehen. Argibide gehiago 943 77 91 58 zenbakian.

► **Diapositiba lehiaketa:** Mendia eta ingurugiroa. Bi

ERAKUSKETA

Txomin Pinillaren margoak

• Kultur Etxean eta Nahikarin

Txomin Pinillak bi erakusketa ditu ikusgai egunotan Bergaran; martitzenean Kultur Etxean zabalduko margo erakusketa maiatzaren 21era arte izango da zabalik, eta Nahikari tabernan, berriz, hil osoan zehar ikusi ahal izango dira bere lanak. Bi erakusketak aldi berean zabalik egotea kasualitate hutsa izan da, Pinillak dioskunez: "lehen aldia da bakarkako erakusketa egiten dudana eta gaizki ulertu bategatik biak batera egitea tokatu zait". Txomin Pinilla (32 urte) Berrizekoa da, eta Bergaran ari da lanean. Pintura txikitatik gustatzen zaio: "herrentasun arazoa daukat eta, txikitik, beste mutikoak futbolearen aritzen zirenean, nik margotu egiten nuen. Pintura lanterakoan autodidakta izan naiz. Bergaran jarri ditudan erakusketetan oleoak zintzilikatu

ditut: paisaiak, figurak, erretratoak eta beste hainbat". Paisaiei dagokienez, Berriz, Bergara eta Euskal Herriko beste herri batzuetako tokiak aukeratu ditu: "normalean margotu nahi dudana lekua aukeratzeko paisaia bere osotasunean kontuan hartzen dut, hau da, konjuntorearen balioa. Bestalde, erretratuekin zeure buruari gehiago exijitzen diozu, erretratututako pertsonaren espresioa lortzeko".

Pinillaren arabera, ez dago alde handirik Nahikari eta Kultur Etxeko erakusketen artean, "gaiak antzerakoak baitira". Kultur Etxeko erakusaretoan 32 koadro jarri ditu, eta Nahikarin, aldiz, 11. Erakusketen helburua bere burua ezagutzera ematea da: "beti ere, eskertzekoa da jendeak zure lanarekiko interesa azaltzea".



Txomin Pinilla Kultur Etxean jarritako margo batzuren ondoan.



ikazoka 00 merkatu plaza
 hezkuntza eta berrikuntza **azoka** Maiatzaren **18tik 21era** **DURANGO**

ordutegia: ostegunetik larunbatera 10:00etatik 14:00etara 16:00etatik 20:00etara igandea 10:00etatik 14:00etara

arlotako diapositibak (35 mm.) sarituko dira: alde batetik, mendia eta bere aberastasunak; eta, bestetik, mendietako ingurugiro arazoak. Lanak entregatzeko epea ekainaren 12an bukatuko da. Argibide gehiago Pol-Polen. 943 76 48 51.

▶ Pegatina lehiaketa
antolatu du Jardunek Pentekoste jaietarako. Taberna eta ikastetxeetan hainbat kutxa jarri dira, eta partehartzaileek bertan utzi beharko dituzte esaldiak maiatzaren 22rako. Esaldi aukeratuak 10.000 pezetako saria jasoko du.

IKASTAROAK

▶ Haurrentzako masajearen inguruko ikastaroa maiatzaren 13tik ekainaren 17ra. Argibideak 943 77 08 05.

DEIAK

▶ Hitzaldia: "Historia contemporanea de Euskal Herria", Patxi Larrionen eskutik, eguaztenean, hilak 17, 19:30ean Miguel Altuna zaharrear. San Joxepe jubilatuen elkarteak antolatuta.

▶ Joxe Iriarte
"Bikila"ren "Borrokaren gorrian" liburuaren aurkezpena datorren eguenean, hilak 18, 19:30ean Kultur Etxean.

▶ Xipizaro ludoteka.
Udaleku irekietarako izen-ematea maiatzaren 19ra arte zabalik. 943 76 23 76.

▶ Euskal presoak Euskal Herrira taldeak dei egiten die taldean parte hartzeko interesatuei, martitzenero 20:00etan Kultur Etxean egiten den bileran agertzeko.

KINTADAK

▶ 1950ko kintoen (1929an jaiotakoak) afaria maiatzaren 20an Antxonin, 21:00etan. Aurretik, 19:00etan, Santa Marinaran meza. Izen-ematea: 943 76 26 53 / 19 22.

▶ 1963an jaiotako bazkaria maiatzaren 27an Azpeitxi jatetxean. Izen-ematea (1.000 pezetako aurrerapena) Ariznoa tabernan hilaren 22ra arte.

▶ 1960an jaiotako afaria maiatzaren 27an Tartufo jatetxean. Izen-ematea (2.000 pezetako aurrerapena) Tartufo jatetxean Kutxako 0123018798 kontu korronte zenbakan.

▶ 1942an jaiotako afaria maiatzaren 27an, 21:00etan Azpeitxi jatetxean. Aurretik, 19:00etan, meza izango da Santa Marinaran. Izen-ematea (2.000 pezetako aurrerapena) Mizpildi okindegian, Edel oihaldendan eta Azpeitxi jatetxean bertan.

Z I N E A

KARTELDEGIA

BERGARA. Novedades
Las normas de la casa de la sidra
Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30.

ARRASATE. Alai zinema
El fin del romance
Eguakitza: 22:00.
Scream 3
Zapatua: 19:30, 22:00.
Domeka: 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:00, 21:30.
Martitzena, ikuslearen eguna: 19:00, 21:30.

ARRASATE. Amaia
La vendedora de rosas
Eguena: 21:30.

EIBAR. Unzaga
Inocencia interrumpida
Eguakitza: 22:15.

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.

Martitzena: 19:30, 22:15.
Eguaztena, ikuslearen eguna: 19:30, 22:15.

EIBAR. Rialto
Una historia verdadera
Eguakitza: 22:15.

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.

Martitzena, ikuslearen eguna: 19:30, 22:15.

ELORRIO. Arriola
American beauty
(El quipaje abierto) laburmetraia aurretik)

Zapatua: 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:00.

Air Bud 2
Domeka: 17:00.

AZKOITIA. Baztartxo
Scream 3
Zapatua: 22:00.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena: 20:00.

LAS NORMAS DE LA CASA DE LA SIDRA

Zuzendaria: Lasse Halstrom.
Aktoreak: Tobey Maguire, Charlize Teron, Michael Caine.
≥13 urte

Michael Caine aktore ingelesa aurtengo oscarretan saritu du te filme honetan egindako lanagatik. Lasse Halstromen (*Mi vida como un perro*) zuzendaritzapean, St.Cloude's umezurtz etxean hazitako *Homer Wellsen* (Tobey Maguire) historia kontatzen zaigu. *Wilbur* medikuak legez kanpoko abortuak egiten ditu bertan eta *Homer* bere metodoak zalantzan jartzen hasiko da...



UNA HISTORIA VERDADERA

Zuzendaria: David Lynch.
Aktoreak: Richard Farnsworth, Sissy Spacek, Harry Dean Stanton. ADIN GUZTIAK

David Lynch zuzendariak (*Corazon salvaje*) azkenaldian egin duen filmerik onena dugu hau. *Alvin Straight* (Richard Farnsworth) *Rose* bere alabarekin bizi da Iowan. Ur tetan ez du bere anaia ikusi. Baina gaixorik dagoela jakitean, bisitan joango zaio belarra mozteko makinan...

BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketan erantzukizunik.

- L** Ikastaro teoriko trinkoak euskaraz eta gaztelaniaz
- L** Ziklomotorreko lizentzia astebetean. AZTERKETARIK GABE!
- L** Izena ematean, %10eko deskontua Gazte Txarelarekin

Gaindi ezazu autoaren azterketa teorikoa 16 urterekin!

ARRAÑAGA
A U T O E S K O L A

Tf. 943 76 16 63

Arantxa Odriozola, Udaleko Gizarte Ongizatean urtetan lan egin ostean, Gizarte Integrazioko Goi Mailako Teknikari moduloko arduraduna da Mariaren Lagundian.

G. Zein da moduloaren helburua?

E. Gizartean arazoak dituzten taldeekin lan egitea.

G. Zein eratako lana?

E. Heziketa arloan sortzen diren proiektuetan lan egiteko prestakuntza eskaintzen du moduloak. Honen zer esan nahi du; bada, adibidez, haur, gazte, hirurgarren adineko pertsona edota etxe gabe bizi den jendearekin... antolatzen diren hainbat heziketa ekin-tzatan zuzenki egingo dutela lan moduloa gainditzen duten ikasleek. Ez dira programazio orokorrak egingo dituzten teknikariak, baizik eta programa horiek zuzenean aurrera eramango dituzten langileak. Hemen ikusten dut nik ezberdintasuna gizarte hezitzaile baten eta modulo hau ikasten duen ikasleetako baten artean. Gizarte hezitzaile batek bere programazioa egingo luke, tailerrak antolatu... Eta tailer horietan, umeekin, nagusiekin, atzeratuekin..., moduloa ikasten ari den kide bat arituko da, hau da, zuzenean egingo du lan hauekin, lehen aipatu bezala. Begirale oso prestatuak izango dira.

G. Gizarte arloan arazoak dituzten talde guztiekin lan egingo dute?

E. Bai. Lantzen duguna ez da talde indibidualekin nola jokatu behar den. Gure ideia nagusia honakoa da: zer behar da arazoak dituen edozein pertsonarekin lan egiteko?

Guretzat oso garrantzitsua da jarrerak lantzea. Hau da, zein jarrera hartu

ARANTXA ODRIOZOLA

Gizarte integrazioko moduloko arduraduna

“Gizartean gero eta gehiago dira baztertuta dauden talde eta pertsonak”



Arantxak urte askotan Udaleko Gizarte Ongizatean egin du lan.

aurrean dugun pertsonarekin. Erlazio teknikak lantzea da guretzat garrantzitsua.

Prozesu hau berdina da talde guztientzat, eta buru belarri lantzen dugu. Bestalde, bakoitzaren ezaugarriak ere lantzen ditugu: haurrenak, nagusienak, ijitoenak... Baina lehen esan bezala, hor bada esparru bat denentzat berdina dena.

“Baztertutako taldeekin lanean jardutea beharrezkoa ikusten dut, baina horretarako prestakuntza behar da”

G. Zer dela eta Bergaran honelako modulo bat jar-tzea?

E. Ez da Mariaren Lagundiaren ekimena izan, hezkuntza arlotik heldu zaigu. Honelako modulo bat beharrezkoa ikusten zen, eta antolatzeko prest egongo ginatekeen galdetu ziguten.

G. Beharra, baina, non ikusi da: bailaran, probintzian...?

E. Hiru zentro gara honelako moduloa eskaintzen dugunak: Bizkaian, Iruñean eta, hirugarrena, Bergaran. Beharra gizarte mailakoa da. Bergaran, esaterako, Gasteiztik, Durangaldetik, Debagoienetik etorritako ikasleak daude.

Nire ustez, beharrezkoak dira honelako moduloak, kontuan izanda, gizarte honetan gero eta talde gehiago daudela baztertuta. Hori dela eta, gizarteari berari ere, honelako ikasketak egotea ondo etorriko zaiola uste dut, talde baztertuak berak sortu baititu. Baztertuta dauden pertsona hauekin lan egitea beharrezkotzat jotzen dut, eta horretarako prestatuta egon behar da. Bestela, bi arrisku daude: lan egitea paternalismoz edo jaramonik egin ez eta trabarik egin ez dezaten baztertuta edukitzea.

Bi mutur hauek nahiko arriskutsuak dira, eta saiatu behar dugu euren lekua duintasun osoz aurkitzen eta lantzen, eta gu apustu horretan gabiltza

G. Zein izango da ikasle hauen lan esparrua?

E. Administrazio publikoaren ongizate sailerako programetan, gobernuz kanpoko erakundeetan, Atzean, emakume taldeetan, gizarte zerbitzuko egoitzetan eta irakaskunta arautuetako ikastetxeetan, besteak beste.



Prentsaurrean bailarako herritako ordezkariak izan ziren, hainbat sindikatutako ordezkariekin batera.

Presoen aldeko bailarako manifestazioa Bergaran

Debagoieneko Euskal Presoak Euskal Herrira plataformak eta Gazte Ekimenak, bailarako manifestazioa antolatu dute Bergaran maiatzaren 21ean, ostegunean prentsaurrean jakitera eman zuten bezala.

Helburua, ondorengo lau puntu hauek errealitate bihurtzea da: euskal preso guztiak euskalerriratzea, gaixotasun sendaezinak dituzten presoak kaleratzea, kondena 3/4ak beteta dituzten presoak kaleratzea

eta espetxeetan bizi baldintzak errespetatuak izan daitezela.

Bailarako plataformek euskal presoen eskubideak aldarrikatzeko elkarrekin antolatzen duten hirugarren manifestazioa da hau.

Bestalde, ekintza bakoitzerako, gizarteko talde baten laguntza eskatu izan du plataformak: lehenengo manifestazioa, abenduan izan zen, Arrasaten. Manifestazio hartarako, bailarako udalei eskatu zitzaizen laguntza. Bigarrena, martxoan, Aretxabaletan, eta hain-

bat kultur eta kirol talderen laguntza jaso zuen plataformak bigarren manifestazio hartan.

Bergarako deialdirako, hirugarrena, hain zuzen ere, bereziki langile munduari eskatu dio plataformak laguntza. Honela, ELA, LAB, ESK, STE-EILAS eta EHNE sindikatuek eta Kooperatibetako Plataformak baietza eman diote presoen aldeko plataformari.

Manifestazioa maiatzaren 21ean, igandea, arratsaldeko 19:00etan aterako da San Martin plazatik.

Parke eolikoaren txostena jendaurrean iradokizunetarako

Parke eolikoaren kokapena zehazten duen Energia Eolikoaren Lurralde Plan Sektorialaren aurrerapen dokumentua udaltxostean dago. Txosten honek, Euskal Autonomi Erkidegoan eraiki daitezkeen parke eolikoaren kokapena zehazten du. Bestalde, energia mota honek dituen abantailak jasotzen ditu txostenak, baina, baita, ingurugiroan duen eragin bortitza ere. Honela, parkeen kokapen proposena erabakitzeko asmoz, jendaurrean izango da dokumentua ekainaren amaiera arte, herritarrek irakurri eta iradokizunak aurkezteko.

IRUKURUTZETAN 27 ERROTA

Txostenean 29 kokaleku jaso dira. 17 baztertuta daude dagoeneko. Arrazoia jasango luketen eragin bortitza da beste arrazoi batzuen artean. Aukeratu diren beste 13 kokaleku posibleen artean, Irukurutzeta mendia dago: Karaketik hasi eta Irukurutzetaraino ia 5 kilometro luzeran; 27 aerogeneradore jarriko lirarteke.

IBARGYREN PENTSYAK

BIONA pentsuen biltegia,
BIOTER produktuak,
haziak eta bestelako nekazal produktuak



San Pedro 3 Tf. 943 76 23 79

LONBIDE OINETAKOAK

Bidekurutzeta 5

BERGARA

☎ 943 76 10 57



Baltsa jaitsiera Deba Ibai garbiaren alde Pazkuetan

Zenbait urtetako etenaren ondoren, aurten baltsa jaitsiera izango da Pentekoste jaietan.

Lehen, Eguzki talde ekologistak antolatzen zuen Pazkuetan ekitaldi hau. Aurten, Udaleko Ingurugiro Batzordeak jaietako egitarauaren barruan sartu nahi du, eta honela, ekitaldia berreskuratu.

Baltsa jaitsierak bi helburu ditu: lehenengoa, eta nagusia, Deba ibaiaren saneamendu integraletik horren gertu egonik, ibai garbi eta bizi bat herri erditik pasatzea ondasuna eta pribilegioa dela aldarrikatzea. Bigarrena, herriko jai nagusietako egitaraua aldarrikapen eta partaidetzarekin osatzea da.



1993. urteko Pazkuetan egindako baltsa jaitsiera.

Lehenagoko baltsa jaitsierak bezala, Pazkuetako martitzenean izango da, arratsaldeko 19:00etan. Ibilbidea, Algodonerako zubitik Bideberri parera arte luzatuko da. Baltsa, norberak

gingo du, eta sariak ere izango dira: Bideberri hartzten den lehenengo baltsari 20.000 pezeta, baltsa orijinalari 20.000, eta partehartzaile guztiei 5.000 pezeta banatuko zaizkie.

2000-2001eko lan-hitzarmenaren onarpena atzeratuta

Astelehenean egingako osoko bilkuran ez zen Udaleko langileen hitzarmena bozkatu, interpretazio arazoak direla medio.

Hitzarmena sindikatu eta administrazio publikoko ordezkarien artean sinatu da. Honek dio, 2001. urtean 35 orduko lan astea indarrean jarriko dela, eta 2000.ean aukeran ematen du. Puntu honen gaineko interpretazioa izan zen Udal eta Langileen batzordearen artean tira-birak sortu zituen: batzordeak ordu murrizketa egun osotan egin behar dela dio eta Udalak egunari minutu batzuk kenduta.



Lopez de Lacalleren heriotza salatzeako kontzentrazioa

Ehun lagun inguru bildu ziren Ibarretxe lehendakariak, joan zen igandean Andoainean atentatuan hildako Jose Luis Lopez de Lacalleren heriotza salatzeako deitutako kontzentrazioa. Astelehenean egin zen, eguerdiko 12:00etatik 12:15era, eta bertan udaleko hainbat ordezkari politiko eta langile ere izan ziren.

**Aldoka
Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA

Samadhi yoga

- Yogoterapia eta erlajazioaren zentrua
- Adin guztietarako
- Jubilatuendako prezio bereziak

Kruz Gallastegi 2, behea. Tf. 639 235 753

Laster zabalik!



Mujika
geologia



Berezitasunak:
Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak

Arteakalea 3 BERGARA 943 76 10 34

Angiozarko San Migel Monte ermita berriztua domekan inauguratu zuten

Angiozarko San Migel Monte ermitako berrizte lanak amaituta, joan zen igandean inauguratu zuten auzotarrek, San Migel jaiekin bat eginik. Ermitak, kanpotik itxura txarrik ez zeukan arren, hainbat berrikuntza-ren premia zuen. Hori horrela, guztiz berri da. Honako lanak egin dira: teilatu berria jarri, kanpaitokia irmotu, hormak errebokatu, zoluan baldosa eta harlausa berriak jarri, habeak indartu eta bistaratu, eta aurrerantzean euriaren ondorioak gutxitzeko neurriak ere hartu dira kanpoko aldean. Horrez gain, ermita barruan dagoen San Migelen irudia bera ere apaindu egin da.

Hiru izan dira ermitaren egoera kaskartu izanaren eragileak: inguruko pagoen sustrai eta hostoak, hezetasuna eta zehena.

Konpontzeko, 4 milioi pezetako aurrekontua behar izan da. Milioi bat Bergarako Udalak eman du, eta beste hiruzehuz auzotarrak egingo dira kargu. Horrez gain, auzolanean egin dira konponketetako batzuk.

IA BI MENDEKO HISTORIA

San Migelen ermita ez da beti orain kokatuta dagoen tokian egon. Aurrez, Kanpazar inguruan omen zegoen. XVIII. mende bukaeran, frantsesen kontrako gerran, guztiz txikitu zuten. 1819.



Itxura hau dauka San Migel ermitak berriztu eta gero.

J.A. MIKED

urtean, auzotarrak bildu, eta ermita Angiozarko bailaran eraikitzea adostu zuten.

Urteen poderioz eta Gerra Zibila tartean, oso hon-

datuta zegoen ermita. San Migelen irudi barrokoa ere Espainiako gerran erre zuten. Orain dagoena, gerra ostekoa da.



**MAKINA
ERREMITAREN
INSTITUTUA**

**INSTITUTO
DE MAQUINA
HERRAMIENTA**

INFORMAZIOA:

San Roke Auzoa, 1 - Elgoibar, Gipuzkoa
Tlf: (34) 943.744132 - Fax: (34) 943.744153
e.mail: amaia@fmh.es

2000/2001 IKASTURTEA HEZIKETA ZIKLOAK


GOI MAILA (A eta D ereduak)

- PROIEKTU MEKANIKOEN GARAPENA
- MEKANIZAZIO BIDEZKO PRODUKZIOA
- INDUSTRI EKIPOEN MANTENIMENDUA

ERDI MAILA (A eta D ereduak)

- MEKANIZAZIOA

**Maiatzaren 18an ateak zabalik
Arratsaldeko 7etan**



Izena emateko epea: Ekainaren 1etik 12ra, biak barne

Berrigara

409 zenbakia.
2000ko maiatzaren 12a.

Irizar jauregia, 20570 Bergara
Telefonoa: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta elektronikoa:
berrigara@topagunea.com
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria: Edu Mendibil.
Erredakzioa: Monika Belastegi, Aintzane Irizar, Edu Mendibil.
Maketazioa: Inaki Iturbide.
Publizitatea: Uxue Zabaleta.
Harpidetza: Itziar Kortabarría.
Testuen zuzenketak: Alex Labaien, Mariipi Laskurain, Estepan Plazaola.
Erredakzio kontseilua: Eneko Azkarate, M. Angel Elkorobezibar, Alex Labaien, Estepan Plazaola.
Komikiak: Unai Azkarate, Oihan Vega, Usua Mendikuta, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Bittor Rodriguez, Alex Ugaldel.
Kolaboratzaileak: Luis Mari Agirre, Antxon Agirre Sorondo, Joxean Azkarate, Juan Martin Elexpuru, Josu Okina.
Banaketa: Txantxangorri taldea.
Inprimategia: Gertu Koop. Elk. (Oñati).

Azaleko irudia: Berrigara

Tirada: 5.300 ale.
 Copyright: BERRIGARA.
 Lege gordailua: SS 50/91,
 ISSN: 1130-6599

BERRIGARAk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



Bergarako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Eusko Jauriritzako Kultura saila

gutunak

Gutunak Berrigarara helarazteko: Berrigara astekaria, Irizar jauregia z/g 20570 Bergara.
 Faxez: 943 76 29 77. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.

GURUTZE GORRIAREN ZERBITZUA

Joan zen astean BERRIGARAKO orrialdeetan irakurri nuenez, Elorregiko Gurutze Gorria larrialdietako ambulanzia zerbitzua eskaintzen hasi da berriz. Alde batetik, pozteko notizia izan dela deritzot, baina, bestalde, aspaldiko kezka bat berpiztu du: zergatik ez da zerbitzu hori behingoz profesionalizatzen? Orain arte, behintzat, boluntarioekin eta Ordezko Zerbitzu Soziala betetzen ari ziren gazteekin eskaintzen zen aipatutako zerbitzua Elorregin (imajinatzen dut Gipuzkoako gainerako herrietan beste horrenbeste gertatuko zela).

Ez dut aipatutakoen lana zalantzan jarriko, ezta gu-

txiagorik ere. Herritar guztion eskertza merezi dute, isilean eta musutruk egindako lan bikainagatik. Baina ez dugu ukatuko horren garrantzitsua den zerbitzu batek profesionalizazioaren beharra duela. Bestalde, BERRIGARAKO albistean aipatzen zenez, boluntarioen kopurua asko jaitsi da Gurutze Gorrian, eta, hori, kezkatzeko motiboa izan daiteke. Zein baldintzatan eskainiko da larrialdietako zerbitzua? Debagoiena osorako bi ambulanzia besterik ez dira erabiliko, bat DYArena eta bestea Gurutze Gorriarena. Ez dut lojkoa ikusten Debagoiena osatzen duten herri guztietarako horren eskaintza eskasa egotea. Are eta gutxiago gure erre-

pideetan gertatzen diren istripu kopuruari erreparatzen badiogu.

Antza denez, Gipuzkoako Gurutze Gorriak larrialdietako zerbitzuari lagatzeko arrazoi nagusia ekonomikoa izan zen. Eusko Jauriritzak edo dagokion erakundeak zerbitzu honi merzei duen laguntza eman beharko lioke, guztion onerako izango delakoan, osasun kontuetan herritarrei babesik handiena eskaini behar baitaie. Ordua da larrialdietako zerbitzua profesionalen esku uztekoa, boluntarioen eta Gurutze Gorrian lanean ari diren guztiek duten meritua ahaztu barik.

I. Garcia

tira biraka oihan vega



atrebentzia ezpada

bai, esan!

Lan-istripuak ebitatzeko, uste dozu nahikua neurri hartzen dala?



Migel Basterra

Nik uste dot ez dala bihar adiña neurri hartzen. Dana dala, lanian ibili naizen denporan sekula ez jat istri-purik tokatu.



Flora Sañudo

Obretan dabizen tokixetan fijatu izan naiz, eta danak ibiltzen dira lotuta, kaskua-rekin...Enpresarixuen eta langillien arduria da.



Andoni Etxeberria

Ez dakit. Ez dakit dan enpresaren aldetik ez dala nahikua neurri hartzen, edo langillien aldetik ardura falta dagoen.



Maria Teresa Tena

Hartu biharko lirake neurri-xak, baiña ez die hartzen, enpresarixuei ez jakuelako bape inporta. Gehituago arduratu biharko lirake.



Maria Elena Etxabarri

Ez dakit, baiña pentsatzen dot baietz. Gaiñera, gertau leike langillien aldetik be ardura falta bat egotia.



Ibon Gantxegi

Oraindik ez, uste dot poliki-poliki aurrera doiarrela asunto hau, baiña oraindik berde dago, eduki doten esperientziagaittik.



Gertaerak salatu edo txalotzeko: 943 76 03 97.
Identifikazioa beharrezkoa.

IBARGARAI KALEAN ZARATAK GOIZETIK

A. Garitanoren deia ja-so dugu aste honetan. Garitano Ibargarai kalean bizi da, eta oso haserre dago bertan egiten ari diren obrekin. Obrak egitearen kontra ez dauka ezer, baina berak esan digunez, langileak oso goiz hasten dira eskabadora, taladro eta beste-lakoekin. Ondorioz, goizeko 7:30etik aurrera lo egitea ia ezinezkoa dela esan digu. Horren aurrean, Ibargarai kalean lanean ari diren enpresek obrak hain goiz hasteko baimenik ote duten galdetu nahi du, eta, bide batez, bertako auzokideak kontuan hartzeko eskatu nahi die arduradunei. Errelebotan lanean ari diren herritarrek, umeak dituztenak edo hain goiz esnatu beharrik ez dutenek ere bere eskubideak dituztela dio.

ETXAGI JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka 8 ☎ 943 76 53 12

Afariak ematen ditugu




Artekalea 14. Tf. 943 76 20 42

Kantu ikastaroa

Mikel Markezen eskutik

20 ORDUKO IKASTAROA.
Denon artean erabakiko dugu ordutegia



3.000 PTA BAZKIDEEK
3.500 PTA GAINERAKOEK

Ikastaroaren bukaeran Kantu Liburutxo bat argitaratzeko asmoa daukagu.



Informazioa: 943 76 36 61 / 08 19



Zuri Beltz margoak

Barnealde eta kanpoaldean erreforma,
pintura zerbitzu osoa eta moketak

943 76 14 60
607 447 494
943 76 59 59

TOKI-ONA Bodegoia-taberna


Eguneroko janariak / Txitxizotzak
Kazolatxoak / Txabierroak

Matxiategi 1 Tf. 943 76 39 53

adituen esanetan

Asma

Mediku suediar batek ondo esaten zuen bezala, asma maitasunaren modukoa da: mundu guztiak daki zer den, baina ez daki nola definitu. Asma birikietako gaixotasun kronikoa da, batzuetan bizitza guztian irauten duena. Hala ere, gaixok bizitza guztiz normala egin dezakete kasu gehienetan. Dena den, beti ere, substantzia narritagarriak, kea, usain fuerteak, kutsadura edo hotz handia txarrak dira asma dutenentzat. Gero eta asma kasu gehiago ematen dira gure gizartean, besteak beste, kutsadura okerrera doalako. Inzidentziari dagokionez, biztanleen %4-5ek izaten dituzten asma arazoak. Oro har, lehenengo 10 urteetan agertzen da, baina beranduago ere ager daiteke. Asmaren jatorria batzuetan prozesu alergiko bat da, baina beste kasu askotan ez da ezagutzen. Asma duten pertsonen arnasbideak oso sentiberak dituzte, eta airean edo berarien organismoan diren substantzia batzuekin kontaktuan jarritakoan, berehala erreakzionatzen dute. Hau gertatzen denean, arnas konduktuak estutu egiten dira, eta butxaduraren ondorioz, airearen sarrera oztopatu egiten da. Kasu horretan, asma krisia deritzona gertatzen da. Prebentzio modura, arnasa sudurretik hartzea gomendatzen da, airea berotu eta hezetzearaino gain, hautsa bezalako substantziak garbitzen baitira horrela, eta ho-



VICTOR IRIGOIEN
Medikua

“Asma dutenek arnasbideak oso sentiberak dituzte, eta aireko substantzia batzuekin kontaktuan jartzean, berehala erreakzionatzen dute”



Oro har, lehenengo 10 urteetan agertzen da asma. ARTXIBOA

riek arnas konduktuetara iristea saihestu.

Honako hauek dira asmatikoen sintomak: arnasa hartzeko zailtasunak, eztula (sikua eta narritagarria) eta bularraren zapalkuntza eta txistuak (sibilancias deiturikoak). Asmak larritasun maila ezberdinak dauzka, gaixoen sintomen arabera: asma arina, moderatua eta gogorra.

Asma krisiak ez dira berehala igartzen. Gaixoak bere arnasbideak ohi baino gehiago estutzen hasten direla somatzen du, eta sintoma arruntena eztula izaten

da hasiera batean. Batzuetan gaixoa, gauzez, esnatu egiten da, baina ez du hori asmaren agerpenarekin lotzen. Krisiaren agerpenaz alde aurretik ohartzeko, aparailu bat dago (flujoaren neurgailua) gaur egun, eta bertan putz eginez arnasbideak ondo dauden ala arazoak izaten hasiko diren jakin dezakegu.

bergarako errotak



BONBOLU edo GOENBOLU

Francisco Ezpeleta Inurrigarro, 65 urtekoa, eta Felipe Ezpeleta Larrañaga, 26 urtekoa, bizi dira bertan, 1890eko erroldaren arabera. Biak errotariak dira, eta badakite idazten eta irakurtzen.

1895ean Francisco Ezpeleta dago errotari.

1919ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean Goemburu izena dator. 1929koan, honela dio:

“Felipe de Ezpeleta jaun bergararrak eskaria egin du, Ur Publikoaren Aprobetxamenduko erroldan Antzuolako erreka urez baliatzen den bat jasoa izan dadin. Aipatutakoak, Bergarako izen bereko auzoan dagoen Goembulu errotan argindarra sortzea du helburu. 200 litro ur jasotzen du segunduko, eta 7,10 m.ko jauzia dauka...”

1927an hartu zuen alta irin errota publiko moduan, Felipe Ezpeletaren izenean, eta 1944tik aurrera, okindegiei zegokien zerga ere ordaindu zuen. 1947tik aurrera, Felipe Ezpeleta Larrinoren izenean dator. 1954tik aurrera zentral elektriko moduan ere ageri zaigu, eta 1959an irin errota publikoa izateari laga zion.

Jasotako informazioaren arabera, Felipe Ezpeleta izan zen azken erroteria. 1946an hil zen, 82 urte zituela.

Ezkerraldean duen Antzuola erreka urez baliatzen zen. Bi pare harri zeuzkan, eta arto eta gariarekin lan egin ohi zuen. %10eko *laka* (komisioa) jasotzen zuen. 16 CVko motordun turbina ere bazuen.

1941ean egin zuten bertan azken ehoketa.

KOKAPENA: Antzuolako bidean, San Antonioko errotako bidegurutzera baino 100 metro lehenago (gaurko semaforoaren ondoan).

Antxon Agirre Sorondo



Lore eta hostoekin sortzen

Hasi da **Jardunek antolatutako hosto lehorren ikastaroa**. Hamazazpi neska eman dute izena, eta sei astez luzatuko da. Hosto eta lorak prentsan nola sikatu, lorak bildu ostean hauek nola sailkatu, konposaketak nola egin eta hauek enmarkatzen ere ikasiko dute. Irakaslea, **Eukeni Arriortua** igorrearra da. Eukenik hainbat urte daramatza hosto lehorrekin lanean, eta hainbat artisau azokatan ere hartu du parte.


Auzotar peto-petoak

Auzotar ugari bildu ziren joan zen domekan **Angiozarko San Migel Monte** ermitako inauguraziora. Eguerdiko ordu batean izan zen meza. Bertan, auzoko bi neska aurrerakua egin zuten, eta, meza ostean inguratu-tako guztiei gonbite goxoa eskaini zitzaion. Argazkian, inaugurazio ekitaldira hurbildutako **hainbat auzotar** ikus daiteke, berriztu berri den ermitaren aurrealdean.



J.A. MIKEO


Bonolotoak 19 milioi Bergaran



Astleheneroko Bonolotoko bi boletok **19 milioi pezetako saria** laga dute Bergaran. Hiru boletok jaso dute bigarren saria: hauetako biri Bergarako Idatzi denda jarri zitzaion zigilua eta hirugarrenari Montillan. Boleto bakoitzak **9.546.563 pezetako saria** du, bost zenbaki asmatu eta osagarriagatik. Konbinazio irabazlea honakoa da: **2-18-21-22-46-48 eta 44 osagarria**. Estatuko Loteria eta Apostuen Gipuzkoako delegazioak azaldutakoaren arabera, irabazleek, 7 apostu multiploko asteko Bonoloto boletoa bete zuten 1.400 pezetaren truke. Bestalde, 7 apostuko eguneroko Bonoloto boleto bat ere bete zuten, 350 pezetaren truke. Bakoitzak **9.703.959** pezeta jasoko ditu. **Jose Javier Sesmak**, Idatzi liburutegikoak esandakoaren arabera, litekeena da bi boletoak pertsona berak betetakoak izatea: "kasualitate handiegia da hiru boleto irabazletatik bi Bergaran tokatzea, eta toki eta egun berean sinatutakoak izatea".

Pazkuetako kartela

Martin Murgizu eta Vanesa Pedraza izan dira Pentekoste jaietako kartel lehiaketako irabazleak. **9 lan** aurkeztu ziren, Bergara zein beste herri batzuetako egileenak, baina epaimahaiari, Bergarako bikotearena iruditu zitzaion kartel egokiena 100.000 pezetako saria jasotzeko. Zoriona Martin eta Vanesari!



Lana eta istripuak

Gipuzkoan 7.000tik gora istripu izan dira aurten

Azkenaldian barra-barra entzuten ditugu lan istripuen inguruko berriak. Aurtengo partean bakarrik, 15etik gora lagun dira, iadanik, lanean izandako ezbeharretan hilik suertatu diren langileak Euskal Autonomi Erkidegoan. Sindikatuak buru-belarri ekin diote gai hau lantzeari eta egoera tamalgarri hau salatzeari. Baina enpresariak ere badute zeresanik. Guk gai delikatu honi buruz alderdi guztiek duten iritzia eta egiten duten hausnarketa bildu dugu honako orrialde hauetan.

Maite Aristegi • EHNE

“Nekazaritza munduan oso garrantzitsua da langile edo baserritar bakoitzaren kontzientziazioa”

“Nik uste dut gehitzen ari direla, bai istripuak eta bai heriotzak. Baserri munduan ere gero eta ezbehar gehiago gertatzen ari da, batez ere, baso lanean, traktorean eta horrelakoetan. Gure eskualdean, baserritar gehienak mistoak dira, hau da, lantegietan dihardute lanean, eta baserriko lanak ere egiten dituzte lantegiko lan-orduetatik kanpo. Honek, sarritan, baserriko lanak presaka eta era desegokian egitea dakar eta horrek guztiak arriskuak dakartza. Baserritarrok autonomoak gara, eta ezin diogu inori errurik bota, geure esku geratzen da kontzientziatu eta ahalik eta erarik seguruenean lan egitea. Geure kabuz hartu behar ditugu beharrezko diren neurriak. Gainera, baserrian lan egiteko beharrezkoak izaten diren tresnen funtzionamendua ere askotan ez dugu behar bezala ezagutzen. Azken finean, profesionaltasun falta ematen da, eta horrek baldintza desegokietan lan egin beharra dakar. Horregatik, nekazaritza munduan oso garrantzitsua da langile edo baserritar bakoitzaren kontzientziazioa.

Itzenbiderik egokiena, nekazarien sindikatuko kide izanik, baserri mun-

dotik bizi ahal izatea izango litzateke. Horrek formazioa eta profesionaltasuna ekarriko lukeenez, arriskuak ere murriztu egingo lirateke.

Baso lanetan, hala ere, enpresek kontratatutako langile askok dihardute lanean, eta hor bai dutela arduraren zati handi bat enpresek. Gainera, kontuan hartu, istripu gehien eragiten duen baserri munduko zeregina dela basoko lana.

Hala ere, istripuez aparte, ez dugu ahaztu behar gaixotasun profesionalak ere hor daudela, eta hauei aurre egiteko neurriak ere hartu behar direla. Momentu honetan, gai hau lantzen dihardugu OSALANekin batera, eta horretan ere garrantzi handia dauka formazioak, era egoki batean zela lan egin ikaste-ko”.



Jose Luis Loidi • LAB

“Egiten diren kontratu motek, langileei ezartzen zaien lan erritmoak...dakar horrenbeste istripu gertatzea”

“Nire ustez, badaude hainbat elementu, horrenbeste istripu gertatzea posible egiten dutenak. Alde batetik, egiten diren kontratu gehienak aldi baterakoak izan ohi dira. Honek, kualifikazio eta esperientzia falta dakartza, eta, aldi berean, istripuak gertatzeko arriskua handitu egiten du. Bestalde, oso lan erritmo azkarrak ezartzen dira, bilatzen dena ahalik eta etekin gehien ateratzea delako. Prebentzio Planei dagokienean, nik uste dut, egin egiten direla, baina kasu askotan ez direla gau-

ISTRIPU, HERIOTZA ETA GAIXOTASUN PROFESIONALAK

2000ko URTARRILA-MARTXOA/GIPUZKOA

Sektoreak	Istripuak	Heriotzak	Gaixotasun profesionalak
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	112	1	50
Industria	2.173	2	184
Eraikuntza	618	3	28
Zerbitzuak	1.346	4	76
Lantokitik kanpo, <i>in itinere</i>	2.807	3	76
GUZTIRA	7.394	13	414

zatzen. Egoera hauek guztiak gero eta gehiago ematen ari dira, horrexegatik gehitu dira istripuak. Nire ustez, honen lehen arduraduna enpresa bera da, eta baita administrazioa ere, berari baitagokio kontrol lana egitea. Horrek ez du esan nahi beste agenteek ez dutenik inolako ardurarik. Denok daukagu arduraren zati bat. Langilea bera ere konurtatu egin behar da arriskuak daudela lanean, eta horren aurrean jarrera aktiboa azaldu behar du. Sindikatuok ere lan asko daukagu egiteko gai honen inguruan.

Gainera, ez dugu ahaztu behar, istripuez aparte, gaixotasun profesionalak ere badaudela, eta horiek saihesteko neurriak hartzea ere ezinbestekoa dela”.

Xabier Garitano • ELA

“Oso inportantea da langileek legeak dioena ezagutzea eta jakitea kasu bakoitzean zer neurri hartu behar diren”

“Lehenik eta behin, esan nahi nuke istripuak eta heriotzak beti egon direla. Gertatzen dena da orain arte, sarritan, ezkutatu egin direla. Enpresa askok, nahiz eta legeak derrigoritu, ez dute oraindik Prebentzio Planik, eta beste askok, berriz, eduki badaukate, baina gero ez dute plan hori aurrera eramaten. Horren kontrola, administrazioaren aldetik, OSALANek darama. Gero, enpresan, sindikatu bakoitzeko delegatu edo ordezkari bat egoten da segurtasunaren gaia kontrolatzeko.

Nik esango nuke, segurtasunaren arduraren zati handi bat, gehiena, enpresarena dela, baina enpresa bateko partaide guztiok daukagula, era berean, arduraren zati bat, eta garrantzitsua dela denok kontzientziatuta egotea, bai enpresariak eta baita langileak ere. Horretarako, oso inportantea da langileak berak ere legeak zer dioen ezagutzea, eta jakitea kasu bakoitzean zer segurta-

Aurtengo lehendabiziko hiruhilabeteen zazpi mila istripu baino gehiago gertatu ziren Gipuzkoan, eta 13 langile hil ziren. Hala ere, sindikatuek diote beti gertatu izan direla istripuak, eta gaixotasun profesionalak ere ez ditugula ahaztu behar.

sun neurri dituen beharrezkoak. Era horretan, esate baterako, kaskoa eramatea beharrezkoa baldin bada eta enpresak kaskorik eman ez badio, eskatzeko moduan egongo da. Eta, era berean, irregulartasunak ematen baldin badira, horiek ikusi eta salatzeke moduan ere egongo da.

Bestalde, nik uste dut istripu hauek lotuta daudela gaur egun ematen diren lan baldintzekin. Hau da, langile asko eta asko aldi baterako kontratatzen dira, eta horietako asko, gainera, ETten bitartez kontratatzen dira. Horrek esan nahi du langile askok ez daukatela behar bezalako formaziorik, ez daukatela esperientziarik, eta horrek istripuak izateko aukerak areagotu egiten ditu”.

Eugenio Zaldua

• Otseineko Pertsonaleko zuzendaria

“Legeek enpresa jotzen dute istripu guztien errudun bakartzat, baina nik uste dut agente guztien artean banatu behar dela ardura”

“Otseinen orain dela bi urte egin genuen Prebentzio Plana, sindikatu guztietako ordezkariekin adostu genuena. Dena dela, esan behar da hemengo lanak ez daukala arrisku handirik. Azkenengo 30 urte hauetan, ez da inor lan istripuz hil, eta bestelako ezbehar larririk ere ez da sekula gertatu.





Fernando Otaño

● **Seguritateko irakaslea**

Migel Altunan

“Hemengo ikasleei, lan mundura iristen direnean zer arrisku aurkituko dituzten eta nola lan egin irakasten zaie”

“Lehenengo FP-IIan ez zegoen “Seguritate” ikasgairik, baina nik uste dut beharrezkoa dela, gaur egun ikasle direnek, lan mundura iristen direnean jakin dezaten zer arrisku dauden, eta nola lan egin behar duten era egokian. Hori guztia hemengo tailerretan bertan ikasten dute.

Duela bost urtetik, derrigorrezkoa da enpresa bakoitzak bere prebentzio plana egitea, eta bazirudien lege horrekin arazo guztiak konponduko zirela, baina ikusten da ez dela horrelakorik gertatu. Alderantziz, badirudi gero eta ezbehar gehiago gertatzen ari dela. Gauza bat da Prebentzio Plan horiek egitea, eta beste bat aplikatzea. Bestalde, langileen arduraren badela iruditzen zait. Kotxea gidatzen dugunok ere, hasieran poliki ibiltzen gara, baina ez zaigula ezer gertatzen ikusten dugunean, gero eta azkarrago gidatzen dugu, eta pentsatzen dugu inoiz ez zaigula ezer gertatuko. Azken finean, in-konsziente samarrak bilakatzen gara, eta nik uste dut gauza bera gertatzen dela lan munduan ere. Beraz, oso garrantzitsua da langileak eurak ere kontzientziatuta egotea”.

Juan Jose Azkarate

● **ESK**

“Nik uste dut enpresarioak eta administrazioa direla istripuen arduradunak, eta ez langileak, hauek gero eta presio handiagoa jasan behar izaten baitute”

“Nik uste dut lehen ere gertatzen zirela heriotzak, baina ez zitzaizela horrenbesteko garrantzirik ematen. Gaur egun, gero eta gehiago egiten dira epe laburrerako kontratuak. Langile horiek, formazio eta esperientzia falta izan arren, lanik txarretan jartzen dituzte enpresetan. Gainera, presio gehiago izaten dute, enpresaren aurrean ondo geratu nahi baitute, lanean jarraitu ahal izateko. Nik uste dut enpresarioen eta administrazioaren arduraren direla ezbeharra. Langileak gero eta presionatuago sentitzen dira, beraz, oso zail egiten zaie enpresaren aurka joatea.

Segurtasunaren arazoa oso lotuta dago produktibitatearekin, eta baita etekinekin ere; izan ere, segurtasun neurri batzuk hartzeak produktibitatea jaisteak dakar, eta horrek, jakina, etekinak gutxitzea. Nik uste dut hori dela arazo nagusia enpresentzat. Gainera, segurtasun neurriak hartzeak inbertsio handia suposatzen du, eta inbertsio hori produktibitatea jaisteko egitea ez da oso irtenbide egokia enpresario baten ztat”. <

Prebentzio Planak eta formazioa dira sindikatu eta enpresen arabera era honetako istripuak sahisteko irtenbiderik egokienak.

Hala ere, nik uste dut gaur egun kontratu asko dagoela baldintza txarretan eginda, eta epe laburrerako kontratatzen dituzten langileek arrisku handiagoa daukatela, esperientzia eta formakuntza faltagatik. Nik badakit enpresario askorentzat gai hau oso garrantzitsua dela, eta neurri egokiak hartzen dituztela; gure kasua ere horixe da.

Ardurei dagokienez, legeak enpresarioa jotzen du errudun bakartzat, baina niri iruditzen zait arduraren agente guztien artean banatu behar dela, seguritatearen gaia ez dagokio-eta enpresari bakarrik, langile guztiei dagokiela uste dut. Langileak arduratsuak izan behar dira, eta beharrezko neurriak era egokian hartu”.

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotilea
pintura industrialak

Errekalde auzoa 5, 1.a ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 / 908 77 64 91

etxalar

kafetegia
kruasantegia

Boni Laskurain 4
943 76 50 68

PANA DEROKUA
ETXALAR

Asteburuetan bertako
babak eta saibeskia

SALBADOR 10 ELGETIA
Tf. 943 76 82 73

Larkano

KIROL OINETAKOAK ETA OSAGARRIAK

Barrenkalea 15-17. BERGARA
Tf. 943 76 25 03

tarjeta

gaztekutxa

txartela△



Bizitza abentura handi bat duzu. Eta zuku osoa atera nahi badiozu, hemenxe daukazu **GazteKutxa Txartel berria**.

Doakoa da, handik eta hemendik lasai asko ibiltzeko erabil dezakezuna, eta denetarik egin eta nahi duzun guztia erosteko ere aukera emango dizuna. Orain, gainera, abenduaren 31 arte, erosketak musutruk egin ditzakezu "Dohainik Erosi" sustapenaren baitan.

Besterik behar, ala?

www.gazteKutxa.net

e-mail: gazteKutxa@kutxa.es

900 40 41 42

Egin klik! hemen, abenturan jarraitu eta sariak irabazi ahal izateko.

gaztekutxa



JANTZIDENDAK ETA KIOLDENDAK

Aisor kioldenda. Bidekurutzeta 7
 Bergara Piel. Espaloia 6
 Cristina. Arruriaga 44
 Gallastegi. San Pedro 15
 Ikus-Bi. Irala 5
 Jauja kioldenda. Irizar 3
 Laket. Barrenkalea 35
 Mujika jostundegia. San Martin plaza
 Subijai. Irizar 1
 Zatoia. Barrenkalea 4
 Zubikua. Barrenkalea 24

HARATEGIAK

Igarza J.J. Irizar 3
 Imaz S. Aranerreka 1
 Lazpiur J. Komenio 2
 Leturia I. Zubiaurre 23
 Leturia J.L. Artekalea 5
 Leturia J.M. San Pedro 24
 Rezola L.M. Matxiategi 7
 Urzelai P. Ibargarai 7
 Zurutuza J.M. Urteaga 9

ZERBITZUAK

Barcelo bidaiak. Zurradero 4
 Carasa, Cilveti, Lacort y Cia. aseguroak.
 Fleming doktorea 3
 Cinebank Bergara. Ibargarai 6
 Grupo A4 aholkularitza. Artekalea 16
 Lagun Aro. Ramon Maria Lili 6
 TGB aholkularitza. Matxiategi 36
 Zurich. Barrenkalea 44

OSTALARITZA


Agirrebeña. Ibarra 2
 Antxoni. Fraiskozuri 4
 Arrano. Kruz Gallastegi 5
 Avenida. Fraiskozuri 6
 Azpeitxi. Aranerreka 13
 Canalejas. San Antonio 6
 La casa del pueblo. Bidekurutzeta 23
 Deportivo. Bidekurutzeta 3
 Erreki. Fraiskozuri 3
 Euskalduna. Osintxu
 Ganbara. D. Irala z/g
 Gaspar. Barrenkalea 31
 Guria. Bidekurutzeta 5
 Infernukua. Masterreka 23
 Kortazar. Barrenkalea 16
 Larrañaga banatzailea. Martoko 3
 Lasa. Ozaeta jauregia
 Maxim's. Simon Arrieta 5
 Miner banatzailea. Matxiategi 23
 Nahikari. Masterreka 20
 Pol-Pol. Komenio kalea 11
 Sirimiri. Barrenkalea 3
 Tartufo. San Juan auzoa z/g
 Torrekoa erretegia. Ibargarai 37
 Txuringo. Osintxu 14
 Zabala. Ibarra 14
 Zer-Nai. Telesforo Aranzadi 4
 Ziripot. Bidekurutzeta 11
 Zumelaga. San Antonio 5

OIHALAK

Anezka. Espaloia 8
 Artazi. Katabia z/g
 Casa Ugalde. Bidekurutzeta 13
 Edel tapizdenda. Bidekurutzeta 14
 Fernandez. Ibargarai 2
 Gaston y Daniela. Kruz Gallastegi 3
 Maher. Bidekurutzeta 29

JANARIDENDAK

Aldi-Irala. Irizar 3
 Erosle Mazorriaga. San Pedro 21
 Goxo-Toki gozotegia. Irala 3
 Hurbil dietetika. Aranzadi 2
 Itxas Eder arraindegia. Mintegia 5
 Kabutzia arraindegia. Fraiskozuri 6
 Larrañaga gozotegia. San Pedro 9
 Laskurain janaridenda. Artekalea 4
 Mari Karmen arraindegia. Kruz Gallastegi
 Mujika gozotegia. Artekalea 3
 Txukun. Fraiskozuri 6
 Zapaterikua janaridenda. Joan XXIII.a plaza.



Tratu zuzenagoa konfidantza eta e

Bergara, zure zt

BUDIN
BICO
DRI
EN

Arria bri
Gelu b
Gisla bu
Lie lon
Mubur
Naiza



UDINDEGIAK- BIKOLAKETA DREK ETA ENTSUAK

Arria brikolaketa. Masterreka 4
Gelu burdindegia. Mintegi 1
Girola burdindegia. San Pedro 8
Lle loredenda. Barrenkalea 28
Mburdindegia. Bidekurutzeta 8
Maiza pentsuak. Masterreka 22



ELEKTRAGAILUAK

Biltoki. Barrenkalea 6
Herran. Matxiategi 3
Jakina. Amillaga 10
Radio Bergara. San Pedro 25
Santos RTV. Masterreka 2
Telkar. Ibargarai 2
Zaiazko. Aranzadi 3

OPTIKAK- BITXITEGIAK- ARGAZKIAK

Arantza bitxitegia. Barrenkalea 4
Argazki. Barrenkalea 16
Etxeberria bitxitegia. Bidekurutzeta 16
Foto-video Zapping. Ibargarai 12
Kiñu. Barrenkalea 35
Manso optika. Irizar 2



PAPERDENDAK- TINDATEGIAK- BESTE

Akort. Mugertza 7
Elkar fotokopiadenda. Arruriaga 1
Idatzi. Barrenkalea 14
Ikasle. Fleming doktorea 11
Jolas. Barrenkalea 27
Marcó. Bidekurutzeta 44
Onena tindategia. Barrenkalea 29
Renteri tindategia. Ikerleku 4

ga, segurtasuna,
ertuan dauzkazu!
e ztru komertziala

MERTZERIAK- LENTZERIAK

Gantxegi. Aranzadi 2
Gracian Agirre. Bidekurutzeta 6
Igarza. Irala 5
Itziar. Matxiategi 1
Juana elgetarra. Zubietta 28
Mirari. Martoko 32
Nerea. Simon Arrieta 1
Phildar. Irala 5

PERFUMERIAK


Amaia. Barrenkalea 25
Camacho. Bidekurutzeta 24
Egiluz. Irizar 3
Goiaira. Irala 3
Igaro. Barrenkalea 35

ALTZARIAK, DEKORAZIOA

Biltoki. San Martin plaza 2
Edertu. Barrenkalea 23
Guridi. Artekalea 8
Rementeria. Artekalea 6
Kanela. Espoloia 10

OINETAKOAK ETA POLTSAK

Agirrebeña. Urteaga 5
Aldasoro. Espoloia 4
Carmen Garate. Bidekurutzeta 15
Egizabal. Bidekurutzeta 13
Galarreta. Irizar 2
Garnish. San Pedro 12
Lazkano. Barrenkalea 15
Lonbide. Bidekurutzeta 5
Retegi. San Pedro 18
Yoar. Barrenkalea 9





Bizkorrek ez zuen gutxiago mere

Zorionak Euskal Herria

h a m a r u r t e



kontuola...

KONTUOLA, Idolaz elkarte, ANTZUOLA. Kazetaria: Marijo Deogracias **Maketazioa:** Iñaki Iturbe **Publizitatea:** Uxue Zabaleta **Erredakzio kontseilua:** Miren Anduaga, Gotzon Iparragirre, Patxi Kortabarria, Jone Larrañaga **Testuen zuzenketak:** Mariipi Laskurain, Lierni Legorburu **Telefonoa eta faxa:** 943 76 65 08, Herri ikastetxea.

Antzuolako hamabostekaria, 58. zenbakia. 2000ko maiatzaren 12a.


Telefoniako antenen arazoa

Antzuolan lau antena jarri dira mendietan, arautu barik

Deskargan, Estalan, Altzetan eta Ursalton jarri dituzten telefoniako antenek ez dute inongo araudirik betetzen. Udalak zigorrak jarriko dizkie Airtel, Euskaltel eta Telefonica enpresei. Izan ere, telefonia mugikorrerako behar diren antenak baimen barik jarri zituzten guztiek.

Aspaldian sakelako telefonoak ugaltzearen ondorioz, udalak gure artean, eta horrekin batera, beste fenomeno bat ere eman da gure mendietan: antenen ugaltzea. Horixe adierazi digute udaletxetik eta baita horretan ari diren enpresen aurkako neurriak hartuko dituztela ere. Telefono hauentzako antenak ugaltzearen ondorioz jarri dira mendietan. Izan ere, erabat zehaztu gabeko arautegia dago, eta ez dute inongo oztoporik horrelakoak egiteko.

Gure herrian Telefonica jarri zuen lehenengo antena. Enpresa honek Deskargan jarri zuen telefonia mugikorrerako antena, eta baimen barik egin zuen nahiz eta beranduago beharrezko eskaerak egin zituen. Airtel enpresak, bestalde, Altzetan jarri zuen antena. Honek ere ez zuen baimenik eskatu horretarako, eta hantxe segitzen du antenak. Hurrengo enpresa Euskaltel izan zen. Honek, ordea, baimena eskatu zuen, Estalan jarri nahi zuen antena jartzeko. Ho-



Estala ondoan dago Euskaltelen antena.

rreren aurrean, udalak, ingurumenean ahalik eta eragin txikiena izan zizan, hobekuntza batzuk egin zetzan eskatu zion Euskalteli. Honek, ordea, antena mar-

ra sakelako telefonoak eta antzerako eskaintzak egiten dituzten enpresak, eta norbaitek hartu beharko du hori arautzeko ardura.

txan jarri du, baina oraindik ez du udalak eskatutakoa bete.

Arazo hau oraindik konpondu barik zegoela, Ursalton beste antena bat jarri zuen Euskaltelek. Oraingoan, baimen barik egin zuen.

ZIGOR ESKAERA

Gauzak horrela, telefonia mugikorrerako lau antena daude Antzuolan. Eta udala enpresa hauen aurkako neurriak hartzeko beharrezko pausoak ematen hasi da. Antenak gutxitzea eta ahal den neurrian leku bakar batean jartzea da helburua. Hala ere, udalaren eskaera horren aurrean enpresek ezintasun teknikoak jartzen dituzte tarteko, eta, gainera, gune horien erabilera publikoa dela esaten dute.

Honen aurrean, udalak ezin izaten dute ezer egin, legeak ez diete eta eskumenik ematen horretarako.

Ikusi egin behar, beraz, nola amaitzen den arazo hau. Izan ere, gero eta gehiago di-

■ ■ ■
Baimen barik jarri dituzte mendian
telefonia mugikorrerako antenak
■ ■ ■

Herria hazten ari dela eta, konponketa ugari aurreikusten ditu udalak

Herriko lau auzotan hobekuntza lanak egingo dira

Aiherra kalean, Kalebarrenen, Eguzki auzoan eta Errekalden hobekuntza lanak egingo ditu udalak urte honetan zehar. A-30 izenez ezagutzen den gunean egiten ari diren etxebizitzak direla eta, udalak beharrezkoa ikusi du ingurune guztia hobetzea. Hori dela eta, lanak aurtengo urtean egingo dira.

Udalak bultzatutako etxebizitza blokeak aurtengo amaituko dira, eta enpresa pribatu batek ere aurtengo hasiko ditu beste bi etxebizitza bloke egiteko lanak. Ekimen pribatukoak hamaseina etxebizitzatako blokeak izango dira; guztira, beraz, hogeita hamabi etxe. Auzo horretan 108 etxebizitza egingo dira, eta guztiak amaitu arte denbora pasatuko den arren, auzoaren urbanizazioa aurtengo amaitzea espero du udalak. 150 milioi pta.ko aurrekontua du horretarako, eta Aiherra kalearen jarraipena aurreikusten da horren barruan. Horrela, bi norabide-tako etxea egingo da. Zazpi metro izango ditu zabalera eta 300 luzera. Baina horretaz gain, azpimarragarriena egingo diren aparkalekuak izango dira. 150 autorentzako lekua izango du Aiherra kalean egingo den aparkalekuak. Eta hortxe bertan igerilekuak aurreikusten dira. Oraindik ez da ezer zehaztu horren gainean, eta datorren hilabeteko osoko bilkuran aztertuko dutela esan digute udal ordezkariak. Dena dela, egin nahi den kirol instalakuntzen proiektua egitea izango da bultzatuko den lehen pausoa.

FRONTOI BIDEA

Olaran etxean egiten ari diren lanak aprobetxatuz, Frontoi bidean ere hobe-



Eguzki auzoan argiteria publikoa berriztuko da.

kuntza lanak egingo dira. Horrela, bada, A-30 gunean lanak hasten direnean hasiko dira, Frontoi bidekoak ere. Frontoi inguruan dauden exerlekuak berriztu egingo dira eta baita iturri inguruko zuhaitzak ere. Bide batez, anbulatorioko sarrera berezia egingo da, gutxitu fisikoendako aldapa egokia izango duena. 45 pezeta milioiko aurrekontua dute lan hauek, eta, gainera, Kalebarren 1 eta 3.ean dauden garajeak botatzeko negoziaketak hasi ditu Antzuolako udalak. Izan ere, garajerik egongo ez balitz Kalebarren eta Frontoi bidearen artean egiteko aukera legoke.

ERREKALDE AUZOA

Auzo horretako hobekuntza lanak jasotzen zituen proiektua aspalditxo egin zen

arren, oraindik ez dira egin beharreko lanak amaitu. Orain arte, argiteria publikoa, umeentzako jolasak eta jardinak baino ez dira txukundu. Hurrengo pausoa, zoladura konpontzea da. Zulo asko dago, eta lekuetara iristea ere ez da batera erraza. Lan hauek egiteko aurrekontua 25 milioi pezetakoa da.



EGUZKI AUZOA

Errekalden argiteria publikoa berriztu bazen, Eguzki auzoan oraintxe egingo dute hori, bai eta jardinak txukundu ere. Urtebeteko epea jarri du udalak bi konponketa horiek eta trafikoaren kontrola eta aparkalekuen hobekuntza aurrera eramateko. Izan ere, Beheko auzoan eta Eguzki auzoan aparkalekuak eguneroko arazo dira.

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA



Bidea eginez

Tailerra: Uzarraga bidea 10. Tf. 943 78 71 78

Erakusketa: Kalebarren 1. Tf. 943 78 71 79, Tf. eta F. 943 76 64 73

- Gasa
- Berogailuak
- Haize egokitua
- Enpresen mantenimendua
- Lurrin instalazioak
- Bero-aurrezteak
- Bainugelak. Proiektuak momentuan egiten ditugu DIBaren bidez
- Birgaitze-espeditentek bideratzen ditugu

Nagore Igarzak, Renault etxearen Diseinu onenaren Saria jaso zuen

Nagore Igarzak 21 urte ditu eta Bartzelonan dabil diseinu grafikoa ikasten. Hirugarren urtea du Nagorek Bartzelonan eta oraindik beste ikasturte bat gelditzen zaio ikasketak amaitzeko. Baina bera dagoeneko hasi da lanean. Eta ez du batere gaizki egiten, gainera.

Nagorek Bartzelonan egin berri den Estatu mailako diseinu lehiaketa bat irabazi du. Obretan zegoen eraikin baten horma estaltzeko erabiltzen den oihal handi horietarako irudia egitea zen lana. Nagorek "txirringilletiarekin" jolasean ari zen ume baten argazkia aurkeztu zuen. Berak esan digun bezala "lehiaketia Renault autoen etxiak antolatzen zeban eta gurpillekin zeozer egittia erabaki neban. Amari txirringilletia bialtzeko eskatu notsan eta gero plaiara jua nitzan argazki kamariarekin ume baten billa".

Dirudienez, antolatzaileek lanak estaltzeko oihalean ez dute azkenean Nagoreren lana ipini, baina seguruenan publizitate kanpaina batean erabiliko dute bere ideia. Laister, bada, txirringilletia ikusiko dugu telebistan Renault etxearen autoren bat iragartzen.

Nagorenarekin batera hamar lan aukeratu zituzten Renault etxeak antolatutako lehiaketarako. "Eskolan neria aukeratu zeben zurrumurrua zabaldu zan. Baiña nik eneban ilusiñorik egitterik nahi. Azkenian, baiña, arduradunetako bat etorri jaten honezkero jakingo nebala, baiña neu nitzala irabazlia, eta Bartzelonako Diseinu Zentro berriztura jua bihar nebala sarixa jasotzera". Eta Nagorek horixe egin zuen. DCD edo Bartzelonako Diseinu Zentrora joan zen. Izan ere, zentro honetan berrizte lanak egin dituzte eta inaugurazio ekitaldia aprobeztatu zuten diseinu sariak banatzeko.



Nagorek datorren urtean amaituko ditu diseinu ikasketak.

Kontuak kontu, Nagorek Jordi Pujoli eskua emateko aukera izan zuen, bai eta Renault etxeko arduradunei ere eta epaimahaikide zen Mariscal diseinatzaileari. Dirudienez, Pujoli Nagore izena ezaguna egin zitzaion eta ia euskalduna zen galdetu zion. "Itxuria danez, berak Nagore izeneko napar bat ezagutzen zeban eta horregaittik galdetu zoztan naparra nitzan eta nik ba, euskalduna nintzala, baiña gipuzkoarra esan notsan".

Nagorek berak ikasten duen eskolarako milioi bat pezeta lortu du sariarekin. Berak, berriz, Pariserako bidaia eskuratu du eta bere kurrikulumean hone-lako izen handia duen etxe baten saria irabazi duela jartzeko aukera. "Parisera eztaikit juango naizen. Lan askorekin nabibil, eta udan oporretara jua bihar naizenez, lehenbailehen lanak bukatzia kome-ni jat eta eztoz uste astixa emongo dostenik. Ikusi egin bihar".

Renault autoen etxeak antolatutako diseinu lehiaketa irabazi zuen Bartzelonan

GAILUR
taberna eta
gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tf. 943 78 70 32

Igor eta Txomin

Margoak orokorrean


ANTZUOLA BERGARA
609 157 131 609 150 164

GOROSTI
Taberna

☎ 943 76 62 96
Zurrategi plaza ANTZUOLA

ANTZUOLA
Apainketak eta isola-
menduak
Pladurrezko dibisioak

Kalegoi 21 ANTZUOLA
Tf.: 943 72 30 05
Biltegia: 943 78 70 40



Arrolak Iparla mendira ibilaldia egingo du.

Piriniotara mendi irteera Arrolarekin

Arrolak Pirinioetara irteera antolatu du maiatzaren 20 eta 21eko astebururako. Euskal Pirinioetara irteera antolatu dute, eta zapaturako eta domekarako mendi irteerak zehaztuta dituzte. Zapatuan, esate barako, Bidarrai-Iparla-Izpegi mendi buelta egingo dute. Bost ordu-

ko ibilaldia izango da hori, eta lo, afaldu eta domekako gosaria Erratzuko kanpinean egingo dute. Domekan ere ibilaldi luzea izango dute: Baigorritik Donibane Garazirako bidea, gutxi gorabehera lau ordukoa izango da: GR-10 bidetik egingo dute.

EGIN KIROLA EUSKARAZ

Deba Arroko Euskara eta Kirol Zerbitzuak "Irabazleak behar ditugu, Euskaraz denok irabazten dugu" izeneko kanpaina jarri zuen martxan. Helburua, kirola egiten den aldiro euskaraz egitea da. Dagoeneko iritsi dira sentsibilizazio kanpaina horren azkenengo aldira. Maiatzaren 13 eta 14an, zapatuan eta domekan, kirola euskaraz egitera animatzeko hainbat material banatuko dute Deba Arroko herrietan, Antzuolan ere bai. Pegatinak, eskola kirola egiten ari direnendako txapatxoak, taldeetako kirolariendako postalak eta kirola egiten den eraikinetan jartzeko pankartak.

PATXIKU TXERREN TXIKI IPUINGINTZA

Hamahiru urtetik beherakoentzat antolatu zen ipuingintza honetan 24 haurrek hartu zuten parte. Eta guztien artean zozketa bat egin zen. Axterixen ipuin bana jasoko dute parte hartzaileetako zortzik. Udal liburutegiak aurkeztutako ipuin guztiekin bilduma bat egingo da. Bestalde, Patxiku Txerren Literatur lehiaketari dagokionez, oraindik epaimahaiak ez du erabaki ezer irabazlearen gainean. Datorren astean zehar jakingo da zer egingo duten.



bertako hizkeria

Aurreko Kontuolako erantzun zuzenak:

1. Eskribidu leike papel honetan?.
2. Juango gara trago bat hartzera hurrengo tabernara?

Sarituak: Goretzi Fernandez eta Usoa Agirre.

Eskuman erantzunak idatzi ostian, moztu eta laga Antzuolako udal liburutegian, DATORREN EGUAKITZA BAIÑO LEHEN.

Erantzun zuzenen artian 5.000 pezeta eta "Antzuolako hizkera" liburuaren ale bat zozketatuko dittugu hamabostero.



Egin X bat esaldi zuzenari

1. A Eruango dostazu Bergararaino?
B Eruango nazu Bergararaino?
2. A Nere amandriak bi seme izen zittuan:
Peru eta Marixa
B Nere amandriak bi seme-alaba izen zittuan:
Peru eta Marixa

Izen-abizenak eta telefonua:

KALEGOI 19 ☎ 943 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

- Zoruen kutxilatuta eta barnizatuaketa •

EGAÑA

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatuta eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tf.: 943 76 64 23

KALEGOI 19 ☎ 943 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

- Apainketarako eta Industriarako pinturak •
• Paper margotuak •
• Mokatetako tapizatuak •

BERGARA

jaietan Salourra

SALOU 2000

Ekainaren 9tik 13ra

Hotel Europa Park ***	19.700
Hotel Molinos Park ***	20.440
Hotel Los Angeles ***	20.440
Hotel San Diego ***	20.440
Hotel Jaime I ***	21.400
Hotel Belvedere ***	24.500
Hotel Estival Park ****	27.280
Hotel Centurion Playa ****	32.100
Hotel Occidental Blau Mar ***	32.500

Luxuzko autopulmana eta mantenu osoa prezioan sartuta daude

Kontsulta itzazu beste hotel batzuetako
egonaldien prezioak eta...

**UMEENTZAKO ETA HIRUGARREN ETA
LAUGARREN LAGUNENTZAKO DESKONTUAK!**

Informazioa eta erreserbak Ecuador Bidaiak-en.

Tf. 943 76 44 45 - 943 76 15 33

Arruriaga 10, BERGARA

“Kirola euskaraz” ospatuko da zapatuan eta domekan

Deba arroko euskara eta kirol udal zerbitzuek denboraldi hasieran martxan jarritako “Kirola Euskaraz” programaren barruan, sentsibilizazio eta prestakuntza programa honen amaiera gisa, azken ahalegina egingo da astebukae-
ra honetan.

Helburu nagusia kirola eta euskara lotzea da, eta horretarako, hainbat euskarri kaleratuko dira bihar, zapatua, eta etzi, domeka: pegatinak eskola kirolean aritzen direnei banatzeko, pinak eta postalak klubetako kirolariendako eta pankartak herriko kirol instalakuntzetan ipintzeko.

“Irabazleak behar ditugu” eta “Euskaraz denok irabazten dugu” lelopean, kirol arloan euskararen erabilera sustatzeko sentsibilizazio eta prestakuntza programak egon dira martxan denboraldi hasieratik. Izan ere, sentsibilizazioaren arloan, Kirola Euskaraz programa ezagutzera emateko kartel, gutun eta hiruorrikoak



Kirola Euskaraz programa ezagutarazteko kartel, gutun eta hiruorrikoak banatu ziren.

banatu ziren Debarroko herri guztietan. Era berean, herri aldizkarietan publikitatea eta prentsa oharrak argitaratu ziren. Horien bitartez, Deba arroan kirola euskalduntzeari begira egiten den lanaren berri eman nahi izan dute; besteak beste, hainbat kiroleko monitore eta entrenatzaileendako ikastaroak; euskarazko kirol materiala sortzeko bekak bultzatu, eta testu liburu, bideo eta fitxa didaktikoak argitaratu dituzte.

Prestakuntza ere kanpainaren ardatzetako bat izan da. Horrela, kirolean dabil-tzan kirolari, monitore edo entrenatzaileei zuzendutako etengabeko formazioa eskaini zaie denboraldian zehar. Entrenamendu eta kirol saioak errendimendu handienaz garatzeko, kirol formazioa eta hizkuntza sentsibilizazioa uztartzen zizuten ikastaro orokorrak eta futbol, pilota eta eskubaloiko hileroko saio praktikoa izan dira. Saio prakti-

koetan, Xabier Azkargorta futbol entrenatzaileak, Aritz Berraondo eta Aitor Elkoro pilotariak edo Xabier Mikel Errekondo Portland San Antonioko eskubaloio jokalar-
riak lagundu dute.


Esan bezala, astebukae-
ra honetako ekintzekin denboraldian zehar egindako kanpainari amaiera emango zaio. Bergarako Udaleko euskara eta kirol zerbitzuek herriko gaztetxoei ekitaldie-
tan parte hartzeko gonbidape-
na luzatu nahi diete.



Gimnastak bikain Gipuzkoako Txapelketan

Eibarko Ipurua taldean ari diren bergarar gimnastek emaitza bikainak lortu zituzten Bergaran jokatutako Gipuzkoako gimnasia erritmiko taldekako txapelketan. Jubenil mailan, Ane Miren Fernandezek lehen postua eskuratu zuen, eta Jaione Igartua hirugarren tokian sailkatu zen. Junior mailan, bestalde, Aintzane Narbaez (argazkian) txapelduna izan genuen, eta Leire Lasa bigarren postuan geratu zen. Jende dezente bildu zen Labegaraietako Kiroldegian jokatutako txapelketan,

eta ikusleek Donostia eta Ipurua taldeetako gimnastek eskainitako ikuskizunarekin gozatu egin zuten. Jubenil eta junior mailan 24 gimnasta izan ziren lehian, 2-4 gimnastez osatutako taldeetan. Aintzane eta Ane Miren datorren maiatzaren 21ean Donostian jokatuko den Euskadiko banakako txapelketarako sailkatu ziren. Era berean, Jaione eta Leirerekin batera, maiatzaren 28an Eibarren izango den taldekako Euskadiko txapelketan ere lehiatuko dira.



Argazkian, Kiroldegiko tenis pistan jokatzen ari den txapelketako partidu bateko irudia.

Tenis txapelketako finalistak erabakiko dira astebukaeran

Astebukaera honetan tenis txapelketako final laurdenak jokatuko dira Kiroldegiko tenis pistan. Lehenengo partiduan, 9.00etan, Javier Olaso eta Juan Luis Etxaniz izango dira aurrez aurre; bigarrenetan, Jesus Kortabarrak Eneko Ugalderen aurka jokatuko du, 10:45ean, eta 12:30ean, Ismael Zubiak edo Juan I. Igartuak Jose Caballeroren kontra. Arratsaldean, Roberto Limeresek eta Jorge Aranesek jokatuko dute final laurdeneko partidurik interesgarrienetako bat, 16:00etan hasita. Kanporaketa

hauetatik finalerdietarako lau jokalarri sailkatuko dira. Finalerdiak domekan jokatuko dira, eta finala maiatzaren 20an.

Txapelketan 26 lagun izan dira lehian, eta joan zen astebukaeran finalzortzirenak jokatu ziren. Txapelketa Debagoieneko zirkuiturako puntuagarria da.

PALA TXAPELKETA

Bestalde, joan zen astebukaeran Binakako XI. Pala Txapelketa jarri zen martxan. Zortzi bikote ari dira parte hartzen, eta bihar, zapatua, partidu hauek jokatuko dira Angiozarko Ar-

biaska pilotalekuan: Gari-koitz Mendizabal eta Gorka Unanue Luis Etxabarri eta Bittor Jimenezen aurka (15:00); Jon Alberdik eta Iñigo Agirrrebeñak Koldo eta Ignacio Peñinen kontra jokatuko dute, 15:45ean, eta, 16:30ean, Andoni Arregi-Lucas Fernandez eta Martin-Oier Urigoitia bikoteak izango dira aurrez aurre. Azkenik, 17:15ean, Axibar Elorzak eta Harkaitz Lizarraldeak Jaime Acebo eta Asier Muruamendiarazen aurka neurtu beharko dituzte indarrak.

Bergara-Durango domekan

Bergarako futbol taldeak denboraldiko azken partidua jokatuko du domekan Durangon, 18:00etan. Aurreraren aurka galdu ondoren, bergararrak sailkapeneko 16. tokian dira, eta 2.B mailako jaitsieren menpe daude mailaz jaisten diren jakiteko.

Ander Muguruza Elgetan irabazle

Ander Muguruzak 22-16ko emaitzarekin galdu zuen Erauskin II.aren aurka eguakitzean Elgetan, 23 urtez azpikoentzako lau terdiko pilota txapelketaren barruan. Igor Gutirrezek hilaren 21ean jokatu du bere bigarren kanporaketa.

Golf ikastaroa Urturin

Debagoieneko kirol zerbitzuek antolatuta, maiatzaren 27an eta 28an golf hastapen ikastaroa izango da Urturin, 10:00etatik 13:00etara. Era berean, perfekzio ikastaroa iragarri da ekainaren 3rako eta 10erako. Argibideak: 943 77 91 67.

KARTELDEGIA

FUTBOLA

Bergara-Zumaiako

Lehen-mailako jubenila

Zapatua. 16:30. Agorrosin

Bergara-Ondarroako Aurrera

Ohorezko kadetea

Zapatua. 18:15. Ipintza

Bergara-Urnieta

Bigarren mailako jubenila

Domeka. 10:30. Ipintza

SASKIBALOIA

Bergara-Intxaurren

Kadete mutilak

Domeka. 10:30.

Mariaren Lagundia

ESKUBALOIA

Bergara-Elgoibar

Kadete neskek

Zapatua. 16:15. Kiroldegia

Bergara-Aloña

Kadete mutilak

Zapatua. 17:30. Kiroldegia

Bergara-Arrasate

Jubenil mutilak

Domeka. 12:15. Kiroldegia

Kiroldegiko tenis pista

Kiroldegiko tenis pista erreserbatzeko eskaerak Kirol Zerbitzuan edo Labagarrietako Kiroldegian bertan egin daitezke. Argibide gehiago jasotzeko udaleko Kirol Zerbitzura edo 943 77 91 67 telefono zenbakira (goizez bakarrik) jo daiteke.



Labegaraietako futbito txapelketa



MONGATXURRAK ETA ERROTAGAIN INDARTSUEN

Mongatxurra (goiko argazkian) eta Errotagain taldeek aurtengo futbito txapelketako talderik indartsuenetakoak direla erakutsi dute urtean zehar, eta, ikusten den bezala, azken txanpara ere oso sasoi onean iritsi dira. Bi taldeek elkarren aurka jokatu dute Ligako finala, eta astebukaera honetan ere aurrez aurre izango dira, Kopako finalerdian. Bildurbarek taldea finalean bietako baten zai dago.

Joan zen astebukaeran, Errotagain eta Mongatxurra taldeek bina partidu jokatu behar izan zituzten, eta biak ere garaile atera ziren bere neurketetan. Ligan Mongatxurra Shaktale taldeari nagusitu zitzaion. Kopan, berriaz, Guadalest taldeari 4-2ko emaitzarekin irabazi zioten domekan.

Errotagainek, aldiz, ez zuen arazorik izan Ligako play-offean, Bayer kanporatzeko (4-1), eta domekan, Uve Bikoitzari irabazi zion Kopan, eta finalerdietarako txartela lortu zuen.

PARTIDUAK

ZAPATUAN BARRUAN

19:00. Mongatxurra-Errotagain

Oharra: Bildurbarek taldeak penalti jaurtiketan irabaziz Artusamak taldeari, eta kopako finalerako sailkatu zen, partidua hiruak berdinketarekin amaitu ondoren. Beste finalista Errotagain eta Mongatxurra taldeek zapatuan jokatu beharreko partidutik aterako da.

EMAITZAK


LIGA TXAPELKETAKO FINALERDIAK

Bayer-Errotagain.....	1-4
Shaktale-Mongatxurra	5-7

KOPAKO KANPORAKETAK

Artusamak-Bildurbarek.....	3-3
Uve Bikoitza-Errotagain	3-5
Mongatxurra-Guadalest	4-2

mahoneroak



GORKA SAN VICENTE
BKEko jokalaria

Nerbioengatik-edo oso partidu txarra jokatu genuen zapatuan, eta Ondarroako Aurrerak merezimendu osoz irabazi zigun. Hasierako minutuetan, partidua nahiko orekatua izan zen, eta markagailuan aurreratzeko aukera bat edo beste ere izan genuen. Hala ere, pixkanaka-pixkanaka bizkaitarrak nagusitu zitzaizkigun, eta, egia esan, partidu borobila egin zuten. Nire ustez, aurtengo denboraldian Agorrosinetik pasatu den talderik onenetarikoa izan da. Zapatuan, gainera, oso motibatuta jokatu zuten, eta ia-ia heltzen ziren bakoitzean gola egiten zuten. Atsedendialdiaren aurretik 0-2koarekin partidua al dapan gora jarri zitzaigun.

Guk, aldiz, ezin izan genuen tentsioa gaintik kendu. Orain, beste emaitzen menpe egon beharko gara azken jardunaldian zein postutan amaitzen dugun jakiteko. Jaitsiera automatikoa ebitatu dugu, baina atzetik laugarren geratzen denak ere maila galtzeko arriskua izan dezake. Hala ere, itxaropena daukat mailaz ez jaisteko.

Informazio hau babesle hauei esker:



OGIZUN

koop. elk. okindegia

San Pedro 21 Zubillaga z/g
BERGARA OÑATI
943 76 20 49 943 78 24 13



Irizar 2
☎ 943 76 14 95

JAUJA KIROLAK

talde federatuen emaitzak

ESKUBALOIA

Bergara 15; Arrate 24
Kadete mutilak

Bergara 21; Loiola 20
Senior mutilak

Bergara 9; Arrate Amaña 18

Kadete neska
Bergara 24; Arrate 33
Jubenil mutilak

FUTBOLA

Bergara 2; Ondarroako Aurrera 4

Hirugarren maila
Amaiak Bat 1; Bergara 0

Neska
Bergara 7; Mundarro 1

Lehen mailako jubenila
Pasaia 3; Bergara 1
Bigarren mailako jubenila
Eibar 0; Bergara 2

Ohorezko kadetea

Bergara 0; Ostadar 2

Lehen mailako kadetea
Mutriku 2; Bergara 0

Infantilak

ARETO FUTBOLA
Bergara 2-Lasarte 8

Senior mutilak
Bergara 7; Azpeitia 1
Jubenil mutilak

SASKIBALOIA

Etxadi 65; Bergara 36

Senior neska
Gasteiz 75; Bergara 67

Senior mutilak
Bergara 64; Lazkao 59

Jubenil mutilak

Otsein Saria

Ondarroako Aurreraren aurka jokalaria hauek nabarmendu ditugu:

Gorka Dueñas 3 puntu

Gorka San Vicente 2 puntu

Jokin Mendiartz 1 puntu

Etxeko partiduak bakarrik hartzen dira kontuan.

kronika lehen mailako kadete futbol taldea

Kale azken partiduan

BERGARA 0

OSTADAR 2

Bergara: Ander Sesma (Paul Lopez de Subijana, 70.min.), Julen Pascual, Jon Irazabal, Ander Cabezas (Javi Fernandez, 65.min.), Iñaki Lasa, Eloy Crespo, Ibai Igarza (Mikel Otaegi, 50.min.), Jose Javier Carreiro, Mikel Juaristi, Ander Santamaria eta Josu Barrutiabengoa (Aritz Balda, 20.min.).



Argazkian, zapatuan Ostadarren aurka jokatu zuen Bergarako kadete taldea.

Bergarako lehen mailako futbol taldeak ezin izan zion mailari eutsi, zapatuan, denboraldiko azken partiduan, Ostadar taldearen aurka, 0-2ko emaitzarekin galdu ostean. Partidua jokatu aurretik, zortzi taldeetatik, bosgarren zeuden bergararrak jaitziera faseko sailka-

penean. Garaipena lortu balu, kategoriari eutsiko zion Bergarak, azken laurek galtzen baitzuten kategoria. Baina lasarterrek ere beharrezkoa zuten garaipena jaitziera saihesteko, eta, azkenean, merezimendu osoz nagusitu zitzaizkien maho-

neroei. Beraz, datorren denboraldia bigarren mailako kadete mailan aritu beharko da Agustin Arbuluk zuzendutako taldea.

Esan bezala, zapatuan, Ipintzan jokaturako partiduan, etxekoek ezer gutxi egin ahal izan zuten bisita-

rien aurka. Partiduaren hasieratik Ostadarrekoak nagusitu ziren zelaian, eta etxeko taldeak zailtasun ugari izan zituen bere zelaitik baloiarekin ateratzeko. Ostadarreko aurrelariak lanak eman zizkieten hasieratik Sesma Bergarako atezainari eta bere defentsari, baina etxekoen atezaina oso ziur azaldu zen erasoko jokaldietan, eta geldiketa bikainak egin zituen. Lehen zatia erdialdean, bisitariak markagailuan aurreratu egin ziren, erdiraketa baten ondoren, beraien erdiko aurrelariak, baloia sareetara errematatuta. Bisitariak, etxekoak baino askoz ere indartsuagoak, baloiaren jabe izan genituen. Bergarak, aldiz, infantil mailako lau jokalarirekin jokatu behar izan zuen, eta zelaian zeuden jokalarien neurriari berari begiratu besterik ez zegoen hiru puntuak nork eskuratuko zituen asmatzeko.

Bigarren zatian, Bergarak berdinketa lortzeko ahaleginak egin zituen, baina etxekoek ez zuten porteria aurrean asmatu. Ostadarrek, kontraerasoan, bigarren gola egin zuten.

JON ALBERDI / Pala jokalaria

"Jende ezberdinarekin jokatzera ondo dator"

Iñigo Agirrebeña eibartararekin batera, Debagoieneko iazko pala zirkuituko irabazlea izan genuen. Aurten, Aretxabaletako txapelketan, hirugarren sailkatu ziren, eta orain, Angiozarren, garaipena eskuratzeko itxaropena daukate.

G. Txapelketako beteranoentakoak izango zarete.

E. Bai, zirkuituko hirugarren edizioa da aurtengoa, eta guztietan parte hartu dugu. Aurretik, Osintxun jokatzeko txapelketan ere jokatu dut urte askoan. Lehen Gaizka Gallastegi laguna zen nire bikotea baina mina hartu zuen eskuan, eta harrezkero, bere lankide bate-

kin ari naiz.

G. Bikote on batek zer behar du?

E. Lasai jokatzera, frontoiari neurriak ondo hartzea eta orduak sartzea, ez dago beste sekreturik. Bestalde, jende ezberdinarekin jokatzera ondo dator beti, gauza berriak ikasteko.

G. Zein frontoitan moldatzen zara hobeto?

E. Zirkuituko frontoietatik Aretxabaletakoa gustatzen zait gehien, duen luzera eta zabaleragatik, eta kantxa ere ona delako.

G. Angiozarkoa, zer?

E. Ondo dago, neurriak egokiak dira, eta gustatzen zait. Baina arazo bakarra zera da: bi partak egiterakoan asko-

tan pilotak errepidera doazela, eta, beraz, saretxo bat jartzea beharrezkoa ikusten dut.

G. Txapelketari begira, aurkari zailenak, zeintzuk?

E. Garikoitz Mendizabal eta Gorka Unanue zestoarrak eta Urigoitia lehengusuak, behar bada. Ikusi behar.



1. ETXEBIZITZAK

SALDU

Koldo Eleizalde.
943 76 50 86 (gauetz).

Artekalea.
619 326 228.

Iraburu kalea (Bolu).
943 76 08 47 (gauetz).

Bolun pisu berria,
sukalde osoarekin.
Garajea igogailuarekin.
629 324 553.

Bidekurutzeta.
619 133 836.

Apartamentua Zubietan.
Erabat berritua, 50 m².
670 901 310.

EROSI

Etxea erosiko nuke alde
zaharrean.
943 76 38 25.

ERRENTAN EMATEKO

Bungalow bat Txarrevie-
jan, udan. Hondartzatik
gertu. 943 78 14 72.

ERRENTAN HARTZEKO

Pisua hartuko nuke
alokairuan.
943 76 04 70 /11 01.

Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, martitzen eguerdia baino lehen.
Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

1. ETXEBIZITZAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Etxe konpartituak
Bestelakoak

2. GARAJEAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

3. LOKALAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

4. LANA
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

6. IBILGAILUAK
Saldu
Erosi
Bestelakoak

7. ANIMALIAK
Saldu
Erosi
Bestelakoak

8. DENETARIK
Saldu
Erosi
Eman
Hartu
Trukatu
Galdu
Aurkitu
Bestelakoak

9. HARREMANAK
Agurrak
Kontaktuak
Deiak
Bestelakoak

ETXE KONPARTITUAK

Etxea konpartituko nuke.
627 046 374 (Diego).

Logela hartuko nuke
alokairuan, sukalderako
eskubidearekin.
943 76 46 64, goizez
(Marilo).

2. GARAJEAK

SALDU

Bolu. Prezio ona.
Deitu 943 76 47 99
telefonora (gauetz).

Bolu. 2 plaza.
616 049 865.

Antzuolan, Zurrategin.
943 76 64 00.

Antzuola, Kalegoi.
Deitu 943 76 47 16
telefonora.

Masterreka.
696 460 406.

Ozaeta. 943 76 73 00.

Garajea salgai Bolun.
943 76 19 69.

Ibargarai. 1.500.000 PTA.
943 76 72 17.

ERRENTAN EMATEKO

Garajea alokairuan
Boni Laskurainen.
Deitu 943 76 47 67
telefonora.

Garajea alokairuan
Zubiaurren.
943 76 23 53.

Garajea alokairuan
Santa Marinan.
943 76 41 88.

ERRENTAN HARTZEKO

Zubiaurren garajea har-
tuko nuke. 943 76 08 26.

3. LOKALAK

EROSI

Lokal komertziala erosi
nahi nuke S. Lorentzon.
300 m². 607 82 53 06.

ERRENTAN EMATEKO

Bolun (100 m²) eta
Arruriagan (18m²)
lokalak alokairuan.
Deitu 606 96 23 80
telefonora.

Mugertzako gainean
35 m²ko lokala alokai-
ruan. 943 76 21 49.

Lokala alokairuan Mar-
tokon. 943 76 11 13.

4. LANA

ESKAITZAK

Auxiliar lana egingo
nuke. 616 848 362
(Monika).

Mutilla edozertan lan
egiteko gertu.
600 600 531.

Neska edozertan lan
egiteko gertu.
646 611 383.

Mutilla edozertan lan
egiteko gertu.
Deitu 616 664 851
telefonora.

Dendako lanetan
esperientzia duen
emakumezkoa lanerako
gertu. 943 76 07 69.

Eskailera eta garajeak
garbitzen esperientzia
duen pertsona lanerako
gertu. 943 76 35 38
(Antonio).

Mutil gaztea lanerako
gertu. 616 664 851.

Mutil gaztea soldatzaile
edo beste edozertan
jarduteko gertu.
646 820 371.

Apunteak, lanak eta

TXOMIN PINILLA



oleo-erakusketa

NAHIKARI taberna

Masterreka 20 Tf. 943 76 57 71

Debagoieneko komunikazio enpresa batek ZUZENDARI KOMERTZIALA behar du

Enpresaren diru sarreren ardura osoa izango du,
produktuen sorrera beretik fakturazioraino,
horretarako eratuko den lantaldea zuzenduz
eta beste arduradunekin elkarlanean.

Eskatzen da:

- Sormena eta antolaketaarako gaitasuna.
- Antzeko lanetan esperientzia.
- Gidatzeko baimena eta autoa.
- Office-ko programen ezagutza.

Eskaintzen da:

- Aldi baterako kontratua, mugagabe bihurtzeko aukerarekin.
- Lanean berehala hastea.
- Soldata negoziagarria.

Interesatuak kurrikuluma eta argazkia bidali,
maiatzaren 27a baino lehen, ondoko helbidera:

95 posta kutxatila • 20500 ARRASATE

Lokal komertziala alokairuan Osintxun.

140 m²

943 76 47 62

BARRAKO ZERBITZARIA behar da jaketxe batean

943 76 20 38

era guztietako doku-
mentuak ordenadorez.
646 095 338.

ESKAERAK

Etxeo lanetarako
pertsona behar da.
Deitu 943 76 11 41
telefonora.

Emakumea behar da
umeak zaindu eta
etxeo lanak egiteko.
Irailetik aurrera.
Deitu 943 76 08 08
telefonora.

Emakumea behar da
abuztuan pertsona bati
lagundu eta etxeo la-
nak egiteko (egun
osorako). 943 76 22 39
(Miren).

5. IRAKASKUNTZA

ESKAINTZAK

Kitarra, soinu eta pan-
dero klaseak ematen
ditut. 943 76 45 73.

ESKAERAK

Pascal programako
klaseak hartuko nituzke
(injinerutza, 1. maila).
943 76 10 44.

Injinerutzako 2. mailako
C programari buruzko

klaseak hartuko nituzte.
Deitu 943 78 09 66
telefonora.

Logseko 1. mailako fisi-
ka, kimika eta matema-
tikako klaseak hartuko
nituzke. 943 76 10 44.

6. IBILGAILUAK

SALDU

Cagiva Roadster
motorra. 3.800 km.
220.000 pta. kaskoa eta
kandadua opari.
943 76 03 72.

Kymko Chooper 125
errepideko motorra.
Prezio onean.
610 972 250 (Anton).

Renault Clio 16V.
93.000 km., egoera
onean. 943 76 16 02.

Scooter Buxsy 49 cc.
motorra. 4.500 km.
Deitu 943 76 34 80
telefonora.

Opel Corsa 1.2 (SS-Y).
Deitu 943 76 37 84
telefonora.

Suzuki motorra.
la berria. 130.000 PTA.
943 76 37 83.

Ford Orion. 300.000 PTA.
Egoera onean.
943 76 54 19 (Raul).

7. ANIMALIAK

SALDU

Boxer eta alemaniar
artzain arrazako txakur-
kumeak, pedigridunak.
696 057 346.

8. DENETARIK

SALDU

Bañareseko kanpinean
modulo bat salgai. Eki-
patua. Bista ederrak.
656 748 337.

Kawasaki GPZ 400 FI
motor beltza. 31.000
km. 150.000 PTA.
943 70 21 11.

Cagiva Custom 125 mo-
torra. 3.800 km.
120.000 PTA.
943 76 03 72.

Tronpeta berria.
943 76 62 05.

Mendiko bizikleta bi.
Merke. 943 76 15 76.

Yashica 108
Multiprogram kamera.
943 76 08 27
(20:00-22:00).

Karro denda,
Inesca Viena. la berria.
943 76 43 80.

Mendiko botak (43 zka.)

eta futboleko zapatilak
(41 zka.). 943 76 33 59.

Tronpeta berria, prezio
onean. 943 78 70 52.

Aluminiozko 16"ko
llanta berriak.
195/60 Vectra.
943 76 28 07.

Goiko kargadun Otsein
garbigailua prezio
onean. 943 76 29 60.

Hiru deposito: 8.000
litroko bat eta 1.800eko
bi. 943 76 12 36.

Alpen Kreuzer karro-
denda. 943 76 39 87.

Bi oheko logela oso bat
eta egongelako armai-
rua salgai. Estreinatua
gabe. 943 12 74 03.


GALDU

Belarritakoa, Kiroldegi
inguruan. 943 76 23 24.

9. HARREMANAK

DEIAK

Kuba edo Dominikar
Errepublikara joan
nahi dugun bi lagun
gara. Gurekin etorri
nahi baduzu, deitu
lehenbailehen:
943 76 91 27 (Aitor).



Langai

Euskal Lan Zerbitzua

DOITZAILEA
Errioxa. 29630/3

FRESATZAILEAK, 2
Errioxa. 30185/3

SUKALDARIA
Bilbo. 30677/6

**KOMERTZIAL
TEKNIKARIA**
Bilbo. 30750/6

**AUTOMOBIL
MEKANIKARIA**
Beasain. 30785/3

KOMERTZIALA
Bilbo. 31214/5

APAREJADOREA
Bilbo. 31267/6

TORNULARIA
Bilbo. 31275/3

**KAMIOI
MEKANIKARIA**
Ibaizabal. 31286/2

IDAZKARIA
Araba. 31530/5

**ELEKTRIZITATE
TEKNIKARIA**
(Lanbide heziketa II)
Bilbo. 31499/3

KOMERTZIALA
Ibai ezkerrekoa.
32019/4

HARAKINA
Errederi. 31851/1

ILEAPAINTZAILEA
Ibai ezkerrekoa.
32080/2

**INFORMATIKAKO
LANBIDE HEZIKETA II**
Bilbo. 32092/1
Bilbo. 32095/1

**DELINEANTE
PROIEKTUGILEA**
Ibai ezkerrekoa.
32096/3

**INFORMATIKAN
LIZENTZIATUA**
Bilbo. 32104/1

DEKORATZAILEA
Goierri. 32149/5

**Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu,
erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.**
Langai Udaletxean: astelehen, eguazten eta
eguakitzetan 9:00etatik 13:00era.
Telefonoa: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

Bolu
liburutegia

Enmarkazioak
Ispiluak neurrira
Zurezko artikulua
Bergarako oleo eta
lumatxoak

Koldo Elizalde 1, behea
Tf. 943 76 70 60

ARDATZA
Brikolaketa

Ateak eta zokaloak
Horma armairuak
Sarrailak eta manilak
Koadroen enmarkazioak
Era guztietako moldurak
Apalak
Kajoiak

Masterreka 4 behea
☎ 943 76 18 93

SEGUROS LAGUN ARO
ASEGURUAK

AGENTEA

Ramon Maria Lili 6, behea
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Telefonoak: 943 76 23 30 • 943 76 41 54
Faxa: 943 76 41 54

ORDUTEGIA: Astelehenerik ostiralera:
9.00-14.00 eta 16.00-20.00
Larunbatetan: 9.00-13.00

IRAEGI
ASEGURUAK

V. Txotxongilo Mostra datorren astean

Maiatzaren 18tik 21era hainbat herrialdetako hamabi antzerki talde izango dira

Helduendako Txotxongiloen Nazioarteko V. Mostra izango da herrian hilaren 18tik 21era bitartean. Bi urtean behin egiten da jaialdi hau eta Taun-Taun antzerki taldeak antolatzen du.

Lau egun horietan, antzerkiaren munduko artista eta lan heterogeneoak ikusteko aukera izango da herriko kale eta eskenatokietan. Txotxongilo Mostrak izango du berezitasunik aurren; izan ere, eskainiko diren ikuskizunetan, txotxongiloek izango duten garrantziaz gain, aktoreek eurek ere, protagonismo handia izango dute.

Bost gunetan banatuko dira ekitaldiak, estiloaren arabera: kalean zehar, Novedades aretoan, Pol-Pol tabernan, Kartzela Zaharrean eta Zabalotegiko aretoan. Bestalde, azpimarratzekoa da, ikuskizun hauetako bi Osintxu eta Angiozar auzoetara ere eramango direla. Horrez gain, eskoletara ere luzatuko dira hainbat lan.

Hamabi talde hurbilduko dira Bergarara. "Plansjet", Flandesko bikote flamenkoak, titer dantzarien ikuskizuna eskainiko du. Italiatik etorrita, Tendere te taldeak "Las milongas de Babalan" ikuskizunean bi txintxeren istorioak kontatuko dizkigu. Argentinako "Chileno Teatro" k, "La republica del caballo muerto" eskainiko du. Brasildik, "Anima Sonho" taldea etorriko da. Tiaraju eta Ubiratan C. Gomez anaia bikiak, arte plastikoak eta musikaren bidez, "Bonocomedias" eta "Bonecronicas" lanak eskainiko dituzte. Erromatik, Laura Kibel harrigarria etorriko da. Animazio teknika oso berezia erabiltzen du ikuskizunetan, oin eta belauak titer baili-

ran erabiltzen baititu. Paristik, "Le zèbre á pois" taldea, eskuak erabiliz, arakuso akrobata bati bizitza emateko gai izango da. Indiako ordezkari bat ere izango dugu, Prasana Rao. Gizon honek, atzamarrekin, itzalak nola egiten diren erakutsiko du.

Geografikoki hurbilduz, Segoviatik "La picara locuela" taldeak "Juego de Polichinelas", guante teknika bidezko saioa eskainiko du. Bartzelonatik, "La fanfarrá" taldeak bideoa, itzalak, txotxongiloak eta ezustek ekarriko ditu "La sombra y el doble" lana aurkeztuz.

Euskal Herriko hiru talde izango dira: ASPACE erakundeko "Teatro negro ametsetan" taldeak, "Aprendiendo a soñar" eskainiko du; Gorakadak "Ilargia lekuko", eta Markeliñek "Alo, Europa".



Laura Kibelen oin trebeak ikusi ahal izango dira.

Egitaraua

Etengabeko eguna	Taldea	Programa	Lokua	Ordua
Eguena 18	AMETSETAN	Aprendiendo a soñar	Zabalotegi aretoa	11:00, 16:00
	PLANSJET	Plansjet	Herriko plaza	19:00
	GORAKADA	Ilargia lekuko	Novedades aretoa	20:00
	LA PICARA LOCUELA	Juego de polichinelas	Pol-Pol	22:30
Eguakitza 19	PLANSJET	Plansjet	Herriko plaza	12:30
	PLANSJET	Plansjet	Angiozar	18:30
	LAURA KIBEL	Teatro di piede	Herriko plaza	18:30
	FANFARRA	L'aombra i el doble	Novedades aretoa	20:00
	EL TENDERETE	Las milongas de Babalan	Pol-Pol	22:30
	CHILENO TEATRO	La republica del caballo muerto	Kartzela Zaharra	24:00
Zapatua 20	PLANSJET	Plansjet	Espoloiá	13:00
	PLANSJET	Plansjet	Osintxu	18:30
	ANIMA SONHO	Bonocomedia	Novedades aretoa	20:00
	LAURA KIBEL	Teatro di piede	Kartzela Zaharra	22:30
	LE ZÈBRE Á POIDS	European microscopic circus	Kartzela Zaharra	24:00
Domeka 21	PLANSJET	Plansjet	Herriko plaza	13:00, 18:30
	PRASANNA RAO	Shadowgraphy	Novedades aretoa	20:00
	LAURA KIBEL	Va dove ti porta il piede	Novedades aretoa	20:00
	MARKELIÑE	Alo Europa	Herriko plaza	22:30
	ANIMA SONHO	Bonecronicas	Kartzela Zaharra	24:00



Sukaldeak.
Horma armairuak.
Neurrira egindako
altzariak.
Ateak eta leihoak.
Arozlanak.

BERGARA ☎ 943 76 58 86

Agirrebeña

PAZETXEA



Ibarra kalea 2 • Tf. 943 76 20 38



Alardean, Karlos Elortza atabalariari omenaldia egingo zaio. Argazkian, R. Etxaniz, B. Retegi, ezezaguna eta Karlos Elortza 1975. urteko argazki batean. B.U.A. ROMAN LARRANAGA FONDOA

Txistulari Eguna datorren domekan estreinakoz

Txistulari Eguna ospatuko da datorren igandean, hilak 14. Lehenengo urtea da honelako jaialdi bat ospatzen dena herrian, eta bertan, Bergarako zein inguruko herrietako txistulari taldeek hartuko dute parte. Bergarari dagokionez, Bergarako Musika Eskolako Txistulari Taldeak eta Bergarako Udal Txistulari Bandak hartuko dute parte. Kanpotik etorriko direnak, honako hauek dira: Antzuola, Arrasate, Eibar, Oñati eta Aretxabaletako Loramendi Dantza Taldeko Txistulari taldeak.

Bi ekitaldi nagusi izango ditu Bergarako Udal Txistulari Bandak eta Bergarako Udalak antolatutako ekitaldi honek: txistularien elkartzea eta ondorengo kalejira batetik, eta alardea, bestetik.

Goizeko 10:00etan elkartuko dira txistulari guztiak San Martin plazan. Ondoren, kalejira egingo dute herriko kaleetan zehar. Kalejiraren ostean, 12:30ean, Alardea hasiko da, San Martin plazan hau ere.

Alardean, herri guztietako 50 txistulari inguruk bat eginik, hamaika obra eskainiko dituzte. Obra hauek guztiek, Bergarekin lotura zuzena dute, izan ere, horietako zortzi Bergarako musikariek sortutakoak zein moldatutakoak dira. Honako obra hauek eskainiko dituzte txistulariek alardean: Bittor Zubizarretak moldatutako "Agur Jaunak", Joseba Labordaren "Artzaine", Bonifazio Laskurainen "Bihotzez", Esther Etxanizek moldatutako "Idiarena", Bizente Monzonen "Minueto Bergara", Jose Inazio Ansorenak moldatutako "Pello Joxepe", Jose M^a Glez. Bastidak moldatutako "Gasteizko nere bihotz ikarak" Bonifazio Laskurainen "Itxaropena", Karlos Elortzaren "Goizean Goiz", Migel Glez. Bastidaren "Martxa Heraldikoak" eta Jose Inazio Ansorenak moldatutako "Gernikako Arbola".

Bestalde, ekitaldian, Karlos Elortza Sasieta txistulariari omenaldia egingo zaio, Udal Txistulari Bandan hainbat urtetan egin duen lanarengatik.


erreseinak



J.M. Torrealдай
Artaziak
Siakera

Euskal liburuaren eta literaturaren historia ezkutatu bat azaleratzen du Joan Mari Torrealдай idazle ezagunak Susa argitaletxearekin kaleratu berri duen liburu interesgarri honetan. Francoren agintean zentsuraren egitura eta jarduna nolako izan zen agertzen du Torrealdayaren "Artaziak: euskal liburuak eta Francoren zentsura 1936-1983" izenburudun liburuak. Gainera, hainbat zentsore eza-gutzeko aukera ere eskaintzen du bere orrialdeetan zehar idazlearen azken lanak: Felipe Ugarte, Jose Antonio Zarzalejos, Jaime del Burgo eta Jose Ramon Aparicio, besteak beste.

- Susa, 260 orri. 2.500 PTA



Leihotikan
Lur
Pop-rock

Kalean da Leihotikan musika taldearen bigarren diskoa. "Lur" izena du talde gaztearen emaitza berriak, eta 15 kantaz osatuta dago: *Badira*, *Lasaitu zaitez*, *Garaia da*, eta *Kolorrea*, besteak beste. Horrez gain, "Gizaxoa", diskoko azkena, bertsoa da. Disko berrirako, hainbat kolaborazio izan dute Leihotikan taldeko Aitor baxuak, Gorka ahotsak, Patxi kitarrak eta Titi bateriak: Balerdi Balerdi taldeko Blancak eta Hemendik At!eko Ikerrek, beste batzuren artean.

-Gor. 2.500 PTA

ETXEPARE-BILINTX



LIBURUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai 12 ☎ 943 76 40 50 BERGARA

DENA
100etik

ZURE OPARIENTZAKO

Simon Arrieta 3

denborapasa

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

Ezker eskuma

1. Elkarlana. 2. Jaso, altxa. Zango-atal. 3. Igarriak.
4. Gelaren erdian. Heldu. Lehenengoa.
5. Nortasun Agiri Nazionala. Potasioa. Bokala. Ez eme.
6. Isolatuturik bizi den erlijiosoa. 7. Nitrogenoa. Infin., kendu.
- Euskal atzizkia. 8. Zital. Boroa. Sufrea. 9. Txakur.
- Barazki-mota. 10. Mendiko atea. Moztu.

Goitik behera

1. Aurrenekoa. 2. Nafarroa eta Gipuzkoako mendialdea.
- Ardi, hitz elkarketan. 3. Nauka. Ba..., jakingo banu. Bokala.
4. Akabo. Elizkizunak. 5. Ikerketa. 6. Bizkaiko herria. Tona.
- Joan aditzaren erroa. 7. Bokala. Sarrerak. Egile atzizkia.
8. Hots baten altuera. Automata. 9. Nafarroako herria. Jar-
- dun. Musika nota. 10. Turkiako hiriburua. Nortasun, izaera.

Soluzioa

10. Ankara. Sen.
9. Zia. Art. Re.
7. E. Ateak. Le. 8. Tonu. Robot.
5. Ikerkuntza. 6. Dima. 1. Oa.
3. Nau. Neki. A. 4. Kito. Mezak.
1. Lehenengoa. 2. Aralar. Art.
Goitik behera
9. Or. Azalora. 10. Ataka. Eten.
7. N. Ken. Kol. 8. Gaizto. B. S.
5. NAN. K. E. Ar. 6. Fremuterra.
3. Hautemana. 4. El. Oratu. A.
1. Lankidetzatza. 2. Erakiki. Oin.
Ezker eskuma

LUMA

bonofotoa




Miguel Angel Elkorobereibar

Zein da baserri honen izena?

galde debalde

Arretaz irakurri duzu Berrigara? Ea galdera hauei erantzuten diezun!

1. Nongoa da Kultur Etxean eta Nahikarin erakusketak daukan Txomin Pinilla?
A- Bergara
B- Berriz
C- Berriatua
2. Zein taldek jokatuko dute Laberagietako futbito-ligako finala?
A- Mongatxurak eta Bildurbarek
B- Mongatxurak eta Shaktale
C- Errotagain eta Mongatxurra
3. Nor omenduko dute domekako Txistulari Egunean?
A- Roman Etxaniz
B- Karlos Elortza
C- Kepa Junkera



Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!



Aurreko aleko saria, **Kristina Ibarguren**entzat izan da: 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Kristinari! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **11 arku** Galde Debalde: **1-A, 2-C, 3-C**

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: _____ 2: _____ 3: _____

Izen-deiturak: _____ Telefonoa: _____

Ekarri txartela EGUAZTEN EGUERDIRAKO Berrigarara! SARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!

Leader Price
Ekilore-olioa, litroa
99 PTA!
Super BMen beti eskaintzarik onenak!

Albertok 38 urte dauzka, ezkonduta dago eta bi seme-alaba dauzka. Orain dala 20 urte zabaldu zeban "Dixula" tabernia, eta gaur egunian berak, beste bi anaiek eta amak lan egitten dabe bertan.

Alberto Urriolabeitia

Tabernako lana gustokoa ziñualako jarri ziñuan tabernia?

Bai, aurretik be beste taberna batzutan ibilitta nenguan, eta gustatzen jaten.

Zer da gehixen gustatzen jatzuna, eta zer gutxien?

Gehixen, jendia ezagutzeko aukeria emoten dabela. Gutxien, ostera, ordutegixa; lan hau oso lotua da.

Txikiteua krisian dagola entzuten da aspaldixan, egixa da?

Bai, orain dala urte batzutatik hona asko jeitsi da.

Hala ta be, tabernia negoziarik seguruena ei da gaur egunian...

Nik ez neuke holakorik esango.

Zer da gehixen edaten dana?

Garagardua eta ardaia.

Zer behar da tabernari ona izateko?

Karakter ona edukitzia.

Pazientzia be bai, ezta?

Jakina!

Zeintzuk die jairik onenak tabernari baten ikuspuntutik?

Pazkuak, kaja ona egitten dalako.

Zure lana aldatzekotan, zertan lan egittia gustatuko jatzuke?

Ez dot uste aldatuko neukenik, baiña aldatzekotan, kirol denda bat jarriko neuke.

Asteko egunik onena eta txarrena?

Onena, domekia; txarrena, ostera, zapatua, ordu pillla bat lan egitten dotelako.

Kirolzalia zara?

Bai, korrika egitten dot, eta futbola be gustatzen jat.

Reala ala Athletica geratuko da lehenago Ligan?

Athleticzalia naiz, beraz, Athletixa.

Jokalaririk gustokuena?

Isma Urzaiz.

Azkenengo derbyxa zela bizi izan ziñuan?

Oso gaizki pasatu neban.

Ze beste afiziño daukazu?

Irakurtzia asko gustatzen jat.

Irakurri dozun azkenengo liburua?

"Reunion tumultuosa", Tom Sharperena.

Zeure burua zelakua ikusten dozu?

Nik uste dot nerbioso xamarra naizela, eta karakter gogorra daukatela.

Loterixan nahi adiña diru tokatu ezkerro, zer egingo ziñuke?

Ez neuke gehixago lanik egingo.

Zerk jartzen zaittu haserre?


Arrazoirik ez daukan pertsona bat "gallo" jartzen danian.

Eta pozez saltoka?


Athletixak irabazten dabenian.

Oporretarako planik edo ideiarik badaukazu buruan?

Bai, urtero joaten gara Benidormera.



Rizkur



Ileapaindegia

Estetika

Solariuma

Bolu 51. Bergara. 943 76 50 32




Gaspar

JATETXEA, TXOKOLATEGIA,
SELF-SERVICE-a

Barrenkalea 31

Tf. 943 76 20 02

BERGARA



GAZTELU

BURDINAKI DENDA

Mintegi 1 • Tf. 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA



San Pedro.9-Telefono. 761051

R.S.I 209374-55
BERGARA

*Gozogintzan
aintzindari.*



Goitibeheretan, 1977 urtean

Joan zen astean Euskal Herriko goitibehera txapelketaren berri ematen genuen kiroletako orrialdeetan, herriko bi lagun bertan parte hartzen ari baitira. Gaur egungo goitibeherak garai batekoak baino askoz ere modernoagoak dira, eta, ondorioz, azkarragoak ere bai. Aste honetako erretratu zaharrean agertzen diren gazteek errodamenduak zituzten goitibeherak erabiltzen zituzten, eta ziur primeran pasatuko zutela elkarren artean lasterketak eginez. Erretratua 1977. urtekoa ei da, eta Imanol Iriagarai orduko Angiozarreko apaizak Azkarruntzen atera zien argazkia koadrilako lagunei. Hona hemen

zeintzuk diren bertan agertzen direnak:

Ezkerrean (goitik behera): Patxi Urkiola, Joxe Mari Larrañaga, Mikel Azkarate eta Xabier Ugalde. Beraien ezkerretara, zutik, Santi Etxeberriarteun.

Erdiko goitibeheran: Fernan Goikoetxea, Alex Madariaga eta Martin Alberdi. Ondoan, zutik, Juanjo Etxeberriarteun.

Eskumako goitibeheran: Joxean Etxezarreta, Juanmi Agirreolea eta Roberto Goikoeetxea.

Argazkia: Patxi Urkiola.

ADI!

Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, BERRIGARARA bertara ekar dezakezu. Irizar jauregian gaituzu, zatoz!



ARRI
Industri
hornidura

Zubiaurre 30
Tf. eta faxa: 943 76 19 04.
Mugikorra: 656 78 64 84.



umelaga

JATETXEA

58 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25



LA PUERTA AL INGLES, S. L.

2000KO UZTAILEKO IKASTAROA

MATRIKULA ZABALIK



INGELESA

- Ume eta gazteendako taldeak (7-14 urte)

- Egunero **3** ordu: 9:30-12:30

23.000 pta.

- Cambridgeko **FIRST** azterketarako prestaketa, 15etik 18 urte bitarteko gazteendako

- Egunero **2** ordu: 11:30-13:30

20.000 pta.

Udako ikastaroan parte hartzen duten ikasleek EZ dute 2000ko iraila-2001eko ekaina ikasturteko matrikula ORDAINDU BEHARRIK izango!

INFORMAZIOA: Burdiñate 5, Bergara Tf. 943 76 30 01

Ametis



DEPILAZIOA:

- Beroa eta hotza
- Depilazio elektrikoa

AURPEGIKO TRATAMENDUAK

- Garbiketak
- Orbanak kentzeko
- Zimurren aurka
- Eta abar



GORPUTZEKO TRATAMENDUAK

- Presoterapia
- Algak
- Solariuma: 10 saio 6.000 PTA
- Masajea: *erlaxagarria, kiromasajea, linfa-drenajea*



AKUPUNTURA:

- Shirley Garciak emana: *Antsietatea, stressa, tabakoa, depresioak, gizentasuna*

MEDIKUAK LAGUNDUTA:

- Dieta pertsonalizatuak
- Barizeak
- Couperous-a



Nobedadea!

MIKROPIGMENTAZIOA
ezpainak, betileak...

■ Masterreka 19, behea. 943 76 46 53. ■



Erakusketa aldaketagatik..

estilo guztiak!



- Logelak
- Egongelak
- Sofak

GRUPO



Amuebladora Mondragonesa

a eme Interiores
Garibai 9. 943 79 15 03

Centro Hogar Muebles
Zigarrola 1, 6 eta 10 pab. 943 77 14 93

Sofa Leku
Zigarrola 1, 6 eta 10 pab. 943 76 15 03

a eme Sukaldeak
Zigarrola 1, 6 eta 10 pab. 943 77 14 93

ARRASATE

... %20tik %50era bitarteko deskontuak



a eme interiores

Garibai 9. Tel.: 943 79 15 03